

IKASTETXEAREN ELKARBIZITZA PLANA EGITEKO GIDA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Ikastetxearen
Elkarbizitza
Plana
egiteko
gida

Aurkibidea

AURKEZPENA	7
1. Gidaren justifikazioa, helburua eta egitura	9
1.1. Justifikazioa	9
1.2. Arau-esparrua eta bestelako xedapenak	10
1.3. Gidaren helburua	11
1.4. Egitura	12
2. Orientabideak: Elkarbizitza Planaren edukia eta egitura	13
2.1. Sarrera	10
2.2. Elkarbizitzaren definizioa	17
2.3. Ikastetxeko elkarbizitzaren diagnostikoa	17
2.4. Helburu orokorrak	19
2.5. Helburuen lorpena bultzatzeko egiturak	19
2.6. Jarduteko irizpide eta ildo orokorrak	24
2.7. Elkarbizitza Planaren urteko zehaztapena: urteko plangintza	31
2.8. Zabalkundea	32
2.9. Elkarbizitza Planaren jarraipena eta ebaluazioa	35
2.10. Eranskinak	36
3. Gehiago jakiteko	37
ERANSKINAK	
Elkarbizitza Plana egiteko adibide eta tresnen eskema	43
Adibideak	45
Tresnak	75
Elkarbizitza Plana idazteko txantiloia	119

Aurkezpena

Hezkuntza-sistemaren helburu nagusia herritar bakoitzari, norbanako aske eta gizarte osasuntsu eta moderno baten partaide gisa, osotasunezko eta gogobeteko bitzta lortzen lagunduko dioten baliabide pertsonalak, sozialak, kulturalak, emozionalak eta profesionalak ematea da, gure gizaki-duintasuna eta denok kabitzen garen eta partaide gaitun gizartea garatzeko balio eta irizpide etikoak dituzten baliabideak, alegia.

Helburu horiek lortzeko baliabiderik lagungarrienetako bat gure ikasleengan elkarbizitzarako eta elkarbizitzarako gaitasuna garatzea da, giza-eskubideen defentsa sustatzeko balio etiko eta moral sakonetan oinarritua.

ikasleak eskola uztean izan behar duen profil orokorra Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen 236/2015 Dekretuan (2016/01/15eko EHAA) finkatuta dago. Bertan zehazten da ikasleak zer gaitasun izan behar dituen Oinarrizko Hezkuntza Orokorra amaitzean, hezkuntza-helburuak lortu eta bizitzako esparru eta egora guztietan moldatzen jakin dezan. Gaitasun horien artean dago elkarbizitzarako gaitasuna, modu honetan zehaztuta:

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion ongirako.
(7.2.c. artikulua)

Baina, asmo horiek egia bihurtzeko, ezinbestekoa da plangintza arduratsua egitea, epe laburrerako planetan zehaztuz epe luzera gauzatuko den plana.

Gida-dokumentu hau aurkezten da ikastetxeei aipatutako plangintza burutzen eta garatzen laguntzeko.

Sail honen nahia da gure erkidegoko ikastetxe guztiek elkarbizitza positiboa sustatu eta ikasleak balio etiko eta sozial sendoetan hezteko jarduerak adostu eta garatzea. Dokumentu hau lagungarri izatea espero dugu.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Hezkuntza Ikuskaritzari eta Berritzegune Nagusiarik gida hau burutzeko eginiko lanarengatik, eta baita, era batera edo bestera, bere iritzia eta iradokizunen bidez, dokumentu honen kalitatea hobetzen lagundu duten pertsona eta ikastetxe guztiei.

Cristina Uriarte Toledo

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua

1. Gidaren justifikazioa, helburua eta egitura

1.1. Justifikazioa

Elkarbizitza hitz polisemikoa da; latineko “*cum vivere*” esapidetik dator eta hainbat kontzeptu edo ideiarekin lotzen da, nabarmenenak hauek direlarik: beste pertsona batzuekin batera bizitzeko gaitasuna, hainbat kulturen arteko elkarbizitza baketsua eta bizitzako esperientzia partekatze aukera.

Carlos Aldana Mendoza¹ giza-eskubideekin loturiko hezkuntza-gaietan adituak lehen aipatutako ñabardurak jasotzen dituen elkarbizitza kontzeptura hurbiltzen gaitu:

“...elkarbizitzak, bere zentzu osoenean, pertsonen arteko harremanak eta haiek bere inguruarekin dituztenak adierazten ditu, jarrera eta balio baketsuetan oinarritzen direnak (erabateko errespetua, parte-hartzea, giza-eskubideen jardunbidea, demokrazia, duintasuna eta beste jokabide batzuk)”

Beraz, funtsean termino positiboa da eta bere garapenak eskolako testuinguruan erabateko zentzua du. Lisboako 2001eko martxoko goi-bileran hezkuntza-sistemaren garrantzia azpimarratu zen, elkarbizitza, gizarteratzea eta herritartasunarekin loturiko alderdiei dagokienez:

“...esan liteke hezkuntza-sistema baliabiderik garrantzitsuena dela ekitate-, inklusio- eta kohesio-printzipioak transmititu eta irakasteko. Beraz, inklusio sozialak eta herritartasun aktiboak leku garrantzitsua hartzen dute 2001eko martxoan Europako Kontseiluak hartutako hezkuntza- eta prestakuntza-sistemaren hiru helburu estrategikoen artean, kalitatea, sarbidea eta Europako hezkuntza mundura irekitzea biltzen dutenak, alegia”.

Horren ondorioz, hezkuntza-sistemaren helburuetako bat gaitasun sozial eta gizabidezkoak garatzea da, elkarbizitzarako gaitasuna alegia (236/2015 Dekretua, EAeko eskola-curriculumeko zeharkako oinarritzko gaitasuna). Bizitzarako ikasketarik baliagarriena pertsona bakoitzak bere buruarekiko eta beste pertsonenekiko harreman positibo bat lortzea da, eta hori da hezkuntzaren ardatz nagusia, zuzentasuna, berdintasuna, elkartasuna, elkarrekiko errespetua eta indarkeriarik ezaren balioei dagokienez. Horregatik, XXI. mendeko heziketaren erronka elkarbizitza, bakea eta giza-eskubideen aldeko heziketaren bidez aurrera egitea da.

EAEEn azken urteotan hezkuntzaren inguruan eginiko hainbat ikerketa eta azterlanek azpimarratu dute elkarbizitzari heldzea, prebentzioan eta irakasleen eta ikastetxeetako zuzendaritzen lan proaktiboan oinarrituz.

¹ Aldama Mendoza, C., Aprender a convivir en un mundo de violencia. Cuadernos de Pedagogía 359. zk

Jarrera horrek ahalbideratzen du arreta elkarbizitza positiboaren aldeko estrategietan jartzea eta ez hainbeste elkarbizitza hori eteten duten kasu larriei eman beharreko unean uneko erantzunean, beharrezkoa ere.

2000. urtean abiarazi zen, EAEko ikastetxeetan, lehen elkarbizitza-programa. Ondoren, 2007tik 2010era bitartean, *Elkarbizitza, Bakea eta Giza-Eskubideen aldeko Heziketa* izeneko programak beste bultzadaxo bat eman zion hezkuntza-komunitateari, elkarrekin bizitzen irakasteak duen garrantziaz jabetzeko, hezkuntza integralaren funtsezko alderdi gisa.

Hezkuntza-esparruan, elkarbizitza hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragile guztien erantzukizuna da. Hori dela-eta, esparru horretan jarduera positiboak sustatu behar dira, eta proposamen eta berariazko esku-hartze bidez elkarbizitzaren kudeaketa (ikastetxearen eta bere inguruaren arteko harreman positiboa, bere araudia, eraketa, eskola-curriculumaren kudeaketa,...) sustatuko duten taldeak eratu behar dira.

Elkarbizitza positiboaren sustapenean zuzenean parte hartzen dutenek arreta handiz prestatu beharko dituzte helburu hori sustatzeko esku-hartzeak, eta haien eraginkortasunaren jarraipena egin beharko dute.

Esku-hartzeen plangintza benetan baliabide sustagarria izango den dokumentu batean jaso beharko da, esku-hartzeak ikastetxearen eguneroko jardunean islatu daitezzen eta hartutako erabakiak adostasunaren ondorio direla bermatu, sistematikoki praktikan jarri eta haien eraginkortasunaren jarraipena egin dadin, eta horrez gain, egindako bidea, metodología eta adostutako prozedurak bildu beharko ditu.

Eskola-komunitate osoak ezagutu behar duen dokumentua izan behar du, eta ikastetxearen hezkuntza-proiektua osatzen duenez, haren identitate-ezaugarri eta jardueraren erreferentzia izango da, berrikuskatu ahal izango delarik.

Aipatutako dokumentuak nagusiki erantzungo dio ikastetxean elkarbizitza positiboa bermatzeko beharri eta ikasleek arian-arian *Elkarrekin bizitzen* zeharkako oinarritzko gaitasuna eskuratzeko prozesuari.

Halaber, hezkuntza-izaerako lege organiko zein autonomikoen araudiak ezarritako errekerimendua bete nahi da.

1.2. Arau-esparrua eta bestelako xedapenak

Gure hezkuntza-sisteman indarrean dauden lege orokorrek eta dekretuek elkarbizitzak ikastetxean duen garrantzia jaso eta haren kudeaketa arautzen dute. Araudi orokorraren ondoren, azken hamarkadan, ikastetxeko elkarbizitza positiboa lantzeko berariazko plana eduki beharra ezartzen duten hainbat xedapen garatu dira. Gida honen edukari loturiko bi xedapen nagusienak hauek dira:

- **201/2008 Dekretua**, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa. Bereziki, 5.1. artikulua hau dio:

“Jokabideak zuzentzeko prozedurak ikastetxeen praktikan integratu beharko dira hezkuntzako beste baliabide bat izango balira bezala. Funts publikoek, osorik edo parte batean, sostengatzen dituzten ikastetxeetako elkarbizitzarako planetan jasota behar du jokabideak zuzentzeko prozedurak. Ikastetxe horiek, Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak xedatutakoarekin bat, Elkarbizitzarako planak onetsi behar dituzte Hezkuntzako bere proiektuen parte gisa”.

- **R2016ko urtarrilaren 18ko Ebazpena**, Hezkuntza sailburuordearena, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan eskola-jazarpeneko egoeretarako jardun-protokoloaren aplikazioa arautzen duena. Bertan honako hau dio:

“Ikastetxeak edonolako indarkeriaren aurkako konpromisoa hartu behar du; indarkeria-egintzak saihesteko eskura dituen baliabide guztiak martxan jarri, faktore positibo edo prebentiboen presentzia babestu eta sustatu, eta behar bezalako elkarbizitza aldatzen dutenak gutxitu edo ezabatu behar ditu. Halaber, kaltetutako harremanak onbideratzeko ereduak proposatu beharko dituzte”.

1.3. Helburua

Sailak dokumentu estrategikoak burutzeko ikastetxeei laguntza eta jarraibideak emateko duen ohiturari eutsiz, orain aurkezten den proposamenaren helburua Elkarbizitzarako Plana eta haren urteko zehaztapena berrikusteko edota lantzeko orientabideak eta hezkuntza-materiala ematea da.

Prestaketa-prozesuan kontuan hartu dira Saileko hainbat zerbitzuek (Hezkuntza Berrikuntza eta Ikuskaritza) lehenago eginiko dokumentuak, eta horien artean aipamen berezia merezi du *Elkarbizitzaren Behatokia sortzeko eta Urteko Elkarbizitza Plana prestatzeko gidak* (Eusko Jaurlaritza, 2008).

Horrez gain, kontuan hartu dira hainbat Autonomia Erkidegok edo bestelako erakundek (unibertsitateak, ikastetxeak,...) argitaraturiko materialak ere.

1.4. Egitura

Dokumentu honek lau zati ditu. Lehen zatia– ***Gidaren justifikazioa, helburua eta egitura***– atal honi dagokio; bigarrenak– ***Orientabideak: Elkarbizitza Planaren edukia eta egitura***– Elkarbizitzarako Plan batean jaso beharko liratekeen alderdien garapen teorikoa biltzen du. Hirugarrenak– ***Gehiago jakiteko***– bibliografia eta erreferentzia jasotzen ditu, eta laugarren zatiak– ***Eranskinak***– hainbat dokumentu lagungarri biltzen ditu.

Eranskinetan, *Ikastetxeko Elkarbizitza Plana egiteko adibideak* jasotzen dira, eta bertan, bigarren zatian aurkezten den oinarritzko eskematik abiatuz, ikastetxeek eredutzat erabili ahal dituzten adibideak eskaintzen dira. Ondoren, Elkarbizitza Planaren eta haren urteko zehaztapena egiten laguntzeko *baliabideak eta lanerako proposamenak* biltzen dira.

Bukatzeko, *Elkarbizitza Plana idazteko txantilo* bat erantsi da.

2. Orientabideak: Elkarbizitza Planaren edukia eta egitura

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 5.2. artikuluan zehazten dira elkarbizitzarako planek jaso behar dituzten alderdiak:

“ Elkarbizitzarako plan horrek berdinen artean, generoen artean eta kulturen artean elkarbizitzarako funtsezko oinarritzat hartuko du norberaren eskubideak baliatzea eta besteen eskubideak errespetatzea, baita irakasleen, ikasleen eta irakasleak ez diren langileen arteko harremanetarako ere. Agiri horretan, gatazkak modu baketsuan ebazteko, adiskidetzeko eta kaltea ordaintzeko bitartekotza-prozedurak jaso beharko dira , baita elkarbizitzarako hezkuntza-konpromisoak hartzeko zuzentarauak eta ikastetxean elkarbizitzaren behatokia antolatzeko neurriak ere”.

EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarren aurrean aplikatu beharreko jarduera-protokoloari buruzko Hezkuntza sailburuordearen 2016ko urtarrilaren 18ko Ebazpenaren IV. puntuan honako hau xedatzen da:

“IV. Protokoloa ezagutzera ematea. Ikastetxeek Elkarbizitza Planean prozedurak jasoko dituzte, berdinen arteko eskolako tratu txarreko kasuen aurrean hezkuntza-komunitatea kontzientziatzeko eta protokoloa ezagutarazteko. Jardunbideak zehaztuko dira tratu txarren arloko edozein egoera ikusi edo ezagutzen denerako, eta neurriak hartuko dira, jardunbide horiek eskola-komunitateko partaide guztiek ezagutu ditzaten”.

Behin aginduzko alderdiak ziurtatuta, dokumentu honetan aurkezten diren gainerako proposamenek izaera orientatzailea izango dute.

IKASTETXEKO ELKARBIZITZA PLANAREN EDUKIA ETA EGITURA

1. SARRERA

Zergatik eta zertarako Bizikidetza Plan bat?

Ikastetxearen
ezaugarriak

Bestelako
dokumentuekiko
lotura

Prozesuaren
deskribapena

Nolako elkarbizitza nahi dugu?
Zer balio sustatu nahi ditugu?

2. ELKARBIZITZAREN DEFINIZIOA

Nolakoak gara?
Nola gaude?
Zer egin dugu orain arte?

3. IKASTETXEKO ELKARBIZITZAREN DIAGNOSTIKOA

Zer lortu nahi dugu?

4. HELBURU OROKORRAK

Nola egingo dugu?

5. EGITURAK

7. PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA

6. IRIZPIDEAK ETA JARDUERA ILDO OROKORRAK

Hezkuntza-komunitate osoak ezagutzen du?

8. EZAGUTARAZTEA

Gure helburua lortzen ari gara?

9. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Elkarbizitza Planarekin loturiko beste dokumentu batzuk.

10. ERANSKINAK

2.1. Sarrera

Elkarbizitza Planaren eraketak hezkuntza-komunitate osoaren partaidetza eskatzen du (irakasleria, ikasleria, familiak eta irakasleak ez diren langileak). Partaidetzarik gabe eratutako elkarbizitza-plan bat teknikoki dokumentu ezin hobea izan daiteke, baina nekez izango da eskolako elkarbizitza hobetzeko tresna baliagarri bat. Partaidetza ezinbestekoa da irakasleak, ikasleak, familiak eta irakasleak ez diren langileek onartuko duten plan sendo bat lortzeko..

Elkarbizitza positiboa garatzeko hezkuntza-komunitatearen asmoak jaso eta ikastetxeko elkarbizitzaren diagnostikoan oinarritzen den dokumentu estrategikoa izan behar du. Elkarbizitza Plana bost ardatz hauen inguruan eratuko da:

- Elkarbizitzaz ulertzen dugunari buruzko denon arteko hausnarketa.
- Ikastetxeko elkarbizitza-planaren indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatuko dituen diagnostikoa
- Izaera orokorreko helburuak finkatzea.
- Elkarbizitza hobetzeko jarduerak diseinatu eta abiaraztea.
- Burututako jardueren jarraipena eta ebaluazioa.

Sarreran aipatu beharko lirateke Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP) ezarritako **printzipioak eta balioak**, eta haiak aztertu ondoren, zehaztu beharko lirateke ahalik eta hezkuntza-komunitateak adostutako elkarbizitza-definizioa balio horiekin bat etorri eta koherenteak izan arte.

Segidan, komenigarria litzateke Elkarbizitza Planaren eta eratutako **bestelako plan edo dokumentuen** arteko **loturak** azaltzea, hala nola, IHP eta (AJA) Antolamendu eta Jarduera Araudia, Tutoretza-jarduerako plana eta Hobekuntza Planarekiko loturak. Plan edo dokumentu guztietako helburuen idazketa berdina egin daiteke haien arteko lotura, koherentzia eta koordinazioa ziurtatzearen.

Garrantzitsua da adieraztea hezkuntza-komunitateak elkarbizitza arloan dituen abiapuntua, zailtasunak eta kezak, zein desio den elkarbizitza-estiloa lortzeko sustatzaile eta laguntzailatzat hartzen diren indarguneak.

Ikastetxeek eskura dituzte Berritzeguneetan materialak, metodologia-orientabideak eta jardunbide egokien esperientziak, hala nola, *eskolabakegune*².

→ ER 1.0.1 eta ER 1.0.2 adibideak ikusi [47 eta 49 orr.]

² <http://www.eskolabakegune.euskadi.eus/web/eskolabakegune>

2.1.1. Ikastetxearen ezaugarriak. Testuingurua

Elkarbizitza Planaren sarrerako atal honen helburua egiturari, antolamenduari, eta ikastetxearen eta hezkuntza-komunitatearen ezaugarriei buruzko ikuspegi orokor bat eskaintzea da, **elkarbizitza-giroan eragina duten alderdi eta ekimenik aipagarrienak nabarmenduz.**

Hezkidetzarekin loturiko atalak IHPn jasota badaude, puntu honetan sartu ahal izango dira. Horrela ez balitz, hemen adieraziko dira kontu esanguratsuenak.

→ **ER 1.1.1** eta **ER 1.1.2 adibideak** ikusi [50 eta 51 orr.]

2.1.2. Hezkidetzaren Planaren prestaketan jarraitutako prozesuaren deskribapena.

Prestaketa-prozesua Elkarbizitza Planaren funtsezko elementua da, sendotasun-maila eta hezkuntza-komunitateak zenbateraino onartzen duen adierazten baitigu.

Dokumentu hau gauzatzeko garatutako prozesuaren laburpentxo bat egin nahi da, bere edukia eta hartutako erabakien zergatia ulertzeko garrantzitsuak izan daitezkeen alderdiak azpimarratuz.

Komeni da jasotzea nolako lidergotza izan duen, nola landu den, inplikazio-maila, sortu diren partaidetza-egiturak, eta haien arteko koordinazioa.

→ **ER 1.1.1** eta **ER 1.1.2 adibideak** ikusi [52 eta 54 orr.]

→ **H 1.1 tresna** ikusi [77 orr.]

2.1.3. Ikastetxeko bestelako dokumentuekiko lotura

Elkarrekin bizitzen ikastea ezin da ulertu irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuko gaitasun isolatu modura, aldiz, ikastetxean egunero burutzen diren ikasketa-esperientziei txertatu behar zaie. Beraz, islatu beharko da hezkuntza-prozesuko orientazio-, planifikazio- eta kudeaketa-dokumentu guztietan (IHP, Tutoretzako eta Orientabide Akademiko eta Profesionaleko Ekintza, Curriculum Proiektua, AJA...) eta, horrez gain, argi gelditu behar du haien arteko erlazioa, lotura, koherentzia eta osagarritasuna.

2.2. Elkarbizitzaren definizioa

Elkarbizitza Planaren funtsezko ataletako bat ikastetxeak hezkuntza komunitatearen elkarbizitza eta ongizateaz ulertzen duena da, eta **bera osatzen duten sektore guztiak konprometitu eta bakoitzaren iritzi eta ikuspuntuak jaso behar ditu**, irakasleak, ikasleak, familiak, zerbitzu eta administrazioko langileak edota ikastetxearekin harremana duten bestelako erakunde edo pertsonak. Zein gizarte-eredutarako hezten ari garen gure ikasleak erabaki eta adostearen ondorio izango da.

Definizio horrek adieraziko du zein den ikastetxearen helmuga arlo honetan eta hobetzeko proposaturiko helburu eta jardueren orientabideak emango ditu.

Garrantzitsuena ez da definizio bakar bat lortzea, baizik eta eztabaidan eta definizioaren eraketan ahalik eta partaidetzarik handiena lortzea, eta bestearen iritzia ulertu eta onartuz, hainbat sentsibilitate eta ikuspuntu adostea.

→ **ER 2.1 adibidea** ikusi [55 or.]

→ **H 2.1 eta H 2.2 tresnak** ikusi [79 eta 83 orr.]

2.3. ikastetxeko elkarbizitzaren diagnostikoa

Elkarbizitza Plan sendo eta eraginkor batek ikastetxeko errealitatea izan behar du oinarri. Horretarako ezinbestekoa izango da irakasleek, ikasleek, familiekin eta irakasleak ez diren langileak hausnarketa egin beharko dute dagoeneko dauden elkarbizitza-alderdi positiboak, hobetu daitezkeenak, edo gaizki funtzionatzen dutelako aldatu behar direnak. Halaber, alderdi horien zergatiak zehaztuko dira eta ikastetxeko bizitzan duten garrantzia balioztatuko da. Helburua izango litzateke ikastetxearen “elkarbizitzaren argazkia” egin, eta sortzen diren aldaketak ikusi ahal izateko argazki hori aldizka errepikatzea.

Ziur aski, eskola-komunitateko talde bakoitzak elkarbizitzari buruzko ikuspegi desberdina izango du; beraz, iritzi desberdinak bildu beharko dira. Aintzat hartu ahal da, komeni bada, estamentu bereko hainbat taldetako iritziak bereiztea. Adibidez, maila edo etapa desberdinetako ikasleen familiekin ikuspuntu desberdina izan dezakete elkarbizitzako alderdi jakin batzuei ekitearen garrantzia eta lehentasunari buruz.

Komenigarria litzateke Ikasgeletan eta ikastetxean orokorrean bizi den elkarbizitza-giroari buruzko iritzi guztien laburpena eranstea. Hala nola:

- hezkuntza-eragile guztien arteko harremanak (estamentu bakoitzean eta elkarrekin)
- ikastetxean jasotako arauari buruzko asebetetze-edota desadostasun-maila eta betetze-mailari buruzko iritziak.

- elkarbizitza arloan konpontzeko premiarik handiena duten alderdiak.
- dagoeneko ezarrita dauden jarduerak (gelako bilerak, Tutoretza-jarduerako Plana, iradokizunen postontzia etab.
- Zuzendaritza-taldearen, irakasleen, irakasleak ez diren langileen , ikasleen edota familien arteko komunikazio-kanalak.
- elkarbizitza sustatzeko eskolaz kanpoko jarduerak.
- une eta lekuak, non harreman-arazo gehien gerta litekeela sumatzen den.
- Irakaskuntza-estilo edo -jardunbideak, erabiltzen diren irakaskuntza-metodologiak eta -ikusuntuak eta denen partaidetza eta arrakasta lortzen laguntzeko modua.
- Ikastetxean portaera zuzentzeko erabiltzen diren neurriak.

Denboraldi batean hartutako neurri zuzentzaileen erregistro-azterketa oso lan lagungarria izan daiteke arazoak zein eratako egoeretan sortzen diren eta egoera horietan ematen den erantzunaren kalitatea eta eraginkortasuna ezagutzeko:

- Gertatutako jokabide desegokien kopurua: jokabide horien maiztasuna eta banaketa kurtso, gune eta denboran.
- Gehien gertatzen diren elkarbizitzarako jokabide desegoki, aurkako edo kaltegarriak.
- Hartutako neurri zuzentzaileak, maiztasuna, egoera-mota, neurri-mota, elkarbizitza positiboarekin bat ez datozen jokabideak zuzentzeko izan duten eraginkortasuna.
- Ezarritako neurri zuzentzaileen eta hainbat egoera edo eragindako ikasleen ezaugarrien arteko harremana.
- Neurri zuzentzailerik ezarri gabeko ikasleriaren ehunekoa.
- Neurri zuzentzaileen kopuru eta motaren, eta generoaren arteko harremana: neskak edo mutilak.
- Jokabide desegokiak pilatzen dituzten ikasleak. Ezaugarriak eta egoera pertsonal, testuinguruak eragindakoak eta akademikoak.

→ **ER 3.1** eta **ER 3.2 adibideak** ikusi [56 eta 57 orr.]

→ **H 3.1**etik **H 3.5**era **tresnak** ikusi [87-107 orr.]

2.4. Elkarbizitza Planaren helburu orokorrak

Elkarbizitza Plana dokumentu estrategiko bat da; bertan zehaztu eta garatzen dira elkarbizitza positiboarekin loturiko Hezkuntza Proiektuaren helburu eta balioak, eta, arlo horri buruz hezkuntza-legeetan jasotzen diren printzipio eta balioak. Helburu horiekin identifikatuko da ikastetxea edo identifikatu nahi izango du .

Beraz, Elkarbizitza Planak berariaz aipatu behar du IHP eta koherentea izan behar du berarekin zein antolakuntza- eta pedagogia-funtzionamendua arautzen duten gainerako dokumentuekin.

Bizikidetzaren Planean xedeak eta helburuak zehaztuko dira, eta bizikidetzaren positiboaren sustapenaren inguruko ikastetxeko jardueraren ildo nagusiak bilduko dira. Helburua da ondorengo urteko planetan garatu eta zehaztuko den diseinu orokor bat egitea.

Helburuek diagnosiaren ondorio izan behar dute, elkarbizitza positiboaren ereduaren zehazteko lortutako adostasunaren emaitza izan behar dute, eta erantzun bat eman behar diete hezkuntza-komunitatearen beharrei.

Aukeraketa egitean, ondoko arau hauek kontuan hartu beharko lirateke:

- *Tipologia*. Helburuek amaierako izaera dute, lortu behar diren xedeak dira.
- *Koherentzia*. Helburuek koherenteak izan behar dute garatu nahi diren printzipio eta balioekin, ikastetxeak hezkuntza-komunitatearen elkarbizitza eta ongizateari buruzko definizioan jasota dituenak.
- *Orientabidea*. Helburu orokorrak iradokiko dituzte jardueraren ildo edo -irizpide orokorrak eta urteko helburuen formulazioa bideratuko dute.
- *Berezko erantzuna*. Ikastetxearen helburuen bidez, elkarbizitza positiboari dagokionez, gizarteak eta hezkuntza-sistemak eskatzen diotenari erantzun sortzailea , berritzailea eta berezkoa ematen saiatuko dira.
- *Bideragarritasuna*. Ikastetxeak, elkarbizitzari ez ezik eskaera askori ere erantzun behar diote. Bestalde, berrikuntza guztiek arrazoizko denbora bat behar dute esperimendatzen direnetik ikastetxearen ohituretan sartu arte. Horregatik da hain garrantzitsua eskura ditugun benetako baliabideak baloratzea eta aldaketa-itzaropenak ikastetxearen errealitateari egokitzea.

Behin helburu orokorrak finkatuta, lehentasunak ezarriko dira, beharrak, aukerak, baliabideak etab. kontuan izanik.

Helburuak antolatzeko orduan, mesedegarria izan daiteke eraginik esanguratsuena duten arloen arabera sailkatzea.

Era berean, komenigarria da, izaera orokorreko helburu bakoitzarekin batera, urteko lorpenak jaso eta erregistratzen joatea, urtez-urte helburu orokorrak lortze aldera egiten diren aurrerapausoak ikusi ahal izateko.

→ **ER 4.1 adibidea** ikusi [58 or.]

→ **H 4.1 tresna** ikusi [109 or.]

2.5. Helburuen lorpena bultzatzeko egiturak

Gaur egun, hezkuntza-komunitateak onartzen du elkarbizitzaren kudeaketan funtsezkoa dela zuzendaritzaren erantzukizuna. Indarrean dagoen araudiak bereziki azpimarratzen du ikastetxeko zuzendaritza kargua betetzen duen pertsonaren erantzukizuna. Bestalde, hainbat ikerketa eta adituk nabarmendu dute elkarbizitza positiboaren eraketa kolektiboak duen garrantzia, haren kudeaketa eta garapenean hezkuntza-sektore guztiak parte hartu behar dutelarik. Hori dela eta, nahitaezkoa da gidaritzaren lidergoa zuzendaritzak izatea, ikastetxeak dituen koordinazio-organoak laguntzaile dituelarik.

Horrela, proposatutako elkarbizitzarako helburu orokorren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa erraztu eta bultzatzeko hainbat organo, egitura eta figura zehaztuko dira.

2.5.1. Aginte izaerako egiturak

Elkarbizitzaren Behatokia

Elkarbizitzaren Behatokia da ikastetxeko eta eskola-komunitateko elkarbizitzaren inguruko helburu edo jarduerak erraztu, sustatu, garatu eta ebaluatzeko erreferentziazko egitura edo organoa.

Organo horren eraketa eta presentzia xedatuta dago *Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 5.2. artikuluan*.

Ikastetxeko Elkarbizitzaren Behatokiak helburu hauek izango ditu:

- a) Errespetuan eta elkarrizketan oinarrituriko elkarbizitza sustatzea.
- b) Elkarbizitzari buruzko ikuspegi globala ezarri, eta prebentzio-jarduerak eta hobekuntza-neurriak proposatzea.
- c) Elkarbizitzaren azterketa, balorazio eta jarraipenerako jarduerak garatzea.

Ikastetxe bakoitzak bere interes eta beharretara ondoen egokitzen den elkarbizitzaren behatokia ezarriko du, kontuan hartuz hezkuntza-sektore guztien partaidetzarako organoa dela. Ikastetxearen beraren gobernu-organoak zehazten duen maiztasunaz bilduko dira, eta behatokiaren zereginak finkatuko ditu.

Honako hauek izan daitezke zereginetako batzuk:

- Sistematikoki ikastetxeko elkarbizitzaren inguruko datuak bildu eta aztertzea.
- Arrisku-faktoreak identifikatu eta ekintza eraginkorrak proposatzea.
- Jardunbide egokiko esperientziak partekatzea.
- Prestakuntza-arloko jarduerak proposatzea.
- Elkarbizitza Plana, bere garapena eta balizko aldaketa ebaluatu eta hobekuntzak proposatzea.
- Estamentu guztien parte-hartze aktiboa, bereziki ikasleena, sustatzea.
- Elkarbizitza positiboa bultzatzea: festak antolatu, kanpainak, gatazkak ebastekeo lantegiak, bitartekaritza eta hezkuntza-konpromisoetarako laguntzak, neurri zuzentzaileen bultzada.
- Ikastetxeko elkarbizitzarako araudia aztertu eta hobetzeko prozesuak proposatzea.
- Indarkeria eta eskola-jazarpenezko balizko kasuak antzematea.
- Inguruarekin harremanak sortzea. Inguruko erakunde eta entitateekin batera lan egitea elkarbizitzari laguntzeko.
- Urteko planeko elkarbizitza hobetzeko helburuak proposatzea.

Edonola ere, Elkarbizitzaren Behatokiak, aurreko ikasturteko ebaluazioa oinarritzat hartuta, hurrengo ikasturterako helburuak eta ekintzak proposatuko ditu, eta aurreikusitako ekintzak planifikatu, antolatu eta praktikan jarriko ditu. Ekintza horiek Ikastetxeko Urteko Planean jasoko dira.

Horrez gain, *Hezkuntza sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren arabera*, ikastetxeetako Elkarbizitzaren Behatokiaren lana izango da prebentzioaren, genero-indarkeriaren eta sexismoaren ondorio diren genero-indarkeria eta edonolako indarkeriaren inguruko alderdiak.

[📄 Ordezkaritza Organo Goreneko \(OOG\) edo Eskola-Kontseiluko \(EK\) eta Hezkidetza Batzordeko berdintasun-ordezkaria³ / hezkidetza-ordezkaria.](#)

Ikastetxeetan, zuzendaritza taldeak izendaturiko klaustrokide bat egongo da **hezkidetza-eredua** bultzatu eta sustatzeko, eta Ordezkaritza Organo Goreneko edota Eskola kontseiluko pertsona aditu bat, **gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-neurriak** bultzatzeko. Pertsona horiek ikastetxea genero-berdintasuna ziurtatuko duen inguru bihurtzeko ekintzak sustatuko dituzte; ikastetxeak garatzen dituen ekimen, proiektu eta programen koherentzia bermatuko du, genero ikuspuntuaren arabera, eta Elkarbizitzaren Behatokiari proposamen integratzaileak aurkeztuko dizkio. Era berean *Hezkidetzarako eta Genero Indarkeriaren Prebentziorako Gida Planarekin* loturiko helburu, hobekuntza-ildo eta ekintza zehatzen proposamena bultzatuko dute.

Halaber, hezkidetza eta genero-indarkeriari buruzko arau-esparrua jakitera emango dio hezkuntza-komunitate osoari.

Ikastetxeko elkarbizitza positiboaren garapenerako bi figura horiek eta egokitzen zaizkien zereginak garrantzi handia dutela jakinik, eta Elkarbizitzaren Behatokiaren zereginak lehenbailehen martxan jarri nahian, komenigarria litzateke bi figura horiek bertako kide izatea.

Ordezkariek izendatzeko eta beren zereginak ezartzeko irizpideak Antolaketa eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian jasoko dira. Beste aldetik, OOGk edo EKK, genero-ikuspegia AJAn edo BAn sar dadin bultzatuko du.

2.5.2. Bestelako egiturak

[📄 Elkarbizitza-batzordea](#)

Ikastetxeek eratu ahal dute bigarren kudeaketa-organo hau ikastetxeko Elkarbizitzaren Behatokian sortzen diren erabakiak eta proposamenak garatzeko, edota elkarbizitzaren egunerokotasuna kudeatu eta dinamizatzeko.

Komenigarria litzateke batzorde honetan hezkuntzako arlo guztietako ordezkaritza bat, Behatokiko zenbait kide eta baita berdintasuna eta hezkidetza arloko arduraduna gotea.

Batzorde honen esku utz daiteke, halaber, 201/2008 Dekretutik eratorritako jokaera zuzentzeko prozedurei buruzko erreklamazioen berrazterketa, OOG edo EKren aurrean. Hala egiten bada, hortaz erabaki

³ Hezkidetza-batzordea ez bada berariaz argitaratutako inolako arauditan agertzen ere, *Hezkuntza sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean* ezinbesteko organotzat jotzen da.

behar dutenek OOGko edo EK-ko kide izan behar dute, eta erabakiak gehiengoz hartuko dituzte, boto haztatuaren sistema⁴ erabiliz.

Funtzionamendua AJAn edo BAn jaso behar da, antolaketa, osaketa, erreferentziazko arau-multzoa eta dituen baliabideak.

[📄 Ikastetxeak zehaztutako bestelako batzorde, lantalde edo egiturak](#)

Ikastetxearen ezaugarriek eta kulturak hala eskatzen badute, zeregin jakinak izango dituzten lantalde edo batzordeak sortuko dira, elkarbizitza arloko ikastetxeko berariazko beharrei erantzuteko. Adibidez: ordezkari-batzordea, bitartekari-batzordea, gelako gurasoen ordezkariak, berdintasuna eta hezkidetza batzordea, elkarbizitza-ikasgela, etab.

2.5.3. Egitura hauen eta ikastetxeko bestelako kudeaketa-organoen arteko harremana.

Elkarbizitza lantzen duten egiturak elkarrekin eta ikastetxeko beste egitura batzuekin koordinatuta eta lotuta egon behar dute, elkarbizitzaren helburuak lortzeko lana koherentea, osagarria eta eraginkorra izan dadin.

Beraz, egitura horietako bakoitzak garatuko dituen eginkizunak, helburuak eta jarduerak mugatzeaz gain, komeni da haien arteko koordinazio-prozedurak adieraztea.

Horrela, adibide modura, sistematikoki bilerak antola daitezke zuzendaritzarekin, pedagogia-batzordearekin, guraso-elkarteekin, jangelaren arduradunarekin, eskolaz kanpoko jardueren arduradunarekin, etab.

→ **ER 5.1** eta **ER 5.2 adibideak** ikusi [60 eta 61 orr.]

⁴ Euskal Eskola Publikoaren Legeak eskaintzen dituen bi aukeretako bat da, eta eraginkorrena dela dirudi. Legeak berak ezartzen du osaketa proportzionala. Boto haztatuaren sistemak berekin dakar batzordekide diren guraso, ikasle eta irakasleen botoei emaniko balioa OOGn edo Eskola Kontseiluan duten berbera izatea. Ahalik eta txikiena izatea proposatzen da, aita edo ama bat, ikasle bat eta irakasle ba, baina argi dago gehiago izan daitezkeela.

2.6. Jarduera-irizpide eta -ildo orokorrak

Behin helburuak zehaztuta, atal honetan, elkarbizitzaren arloko **jarduerak gidatuko dituzten irizpideak** eta **jarduera-ildo nagusiak** finkatuko ditugu, eta urteko planaren barruan zehaztuko ditugu.

2.6.1. jarduera-irizpide orokorrak

Hasiera batean, ikastetxeak elkarbizitza-arloan garatuko dituen ekintzen diseinua eta abiaraztea bideratzeko irizpideak erabaki behar dira.

Irizpide orokorrak zehazterakoan, aintzat hartu behar dira inplikaturik dauden estamentuak (irakasleria, ikasleria, familia, irakasleak ez diren langileak, ingurukoak, etab.) eta haien arteko harreman guztiak. Argi izan behar dugu, jarduera-irizpide orokorren garrantzia desberdina izango dela, eragiten duten estamentuaren arabera. Horrela, adibidez, elkarbizitzan lanaren hasieran, komenigarria da ikastetxeko **irakasle guztiek oinarrizko erabaki eta konpromiso batzuk** adostea. Esperientziak erakusten digu, irakasleen artean ez badago funtsezko gaiei buruzko adostasunik, gero ziklo, atal edo bestelako koordinazio-organoetan gauzatuko diren gaiak direnez, oso zail bihurtzen da ikasle edo familiekiko elkarbizitza modu koherente batean garatzea. Bereziki aipagarria da **familien inplikazioa** sustatzeak duen garrantzia.

Balizko irizpide orokorren zerrenda oso luzea da. Finka daitezkeen irizpideak honako gai hauei buruzkoak izan daitezke: gatazka baten aurrean noiz eta nola esku hartu; nola sustatu balio jakin batzuk, hala nola, errespetua, elkartasuna, tolerantzia edo lankidetzat; nola indartu eta baloratu elkarbizitza positiboaren hobekuntza eta sustapena bultzatzeko jarduera jakin batzuk; nola ebaluatuko dira ikasleak elkarbizitzari dagokionez; nola sartu elkarbizitzako lana curriculum- eta metodologia jardueran; eta inklusioa, guztien eskola-arrakasta eta harreman positiboaren sustapena bultzatuko duten antolaketa-irizpideak.

Adostu daiteke lehenestea garatuko diren ekintzei ekiteko modu zehatz batzuk, hala nola, hausnarketa eraikitzaile edo konpontzailerako estrategien erabilera, balioa ematea jokabideak berriro bideratzeari, eta bizitako esperientziatik abiatuz hezkuntza-trataera eta ikaskuntza ziurtatzea; lehenetsitako modu horiek erreferentzia izango dira komunitateko kide guztientzat eta, bereziki, irakasle eta ikasleentzat. Halaber, ados daitezke parte hartzeko gutxieneko errekerimenduak, gela edo ikastetxeko arauak prestatzeko protokoloak, elkarbizitza positiboarekin batera ezinak diren jokabide eta jarrerak berriro bideratzeko estrategia bateratuak, etab.

Bitartekaritza, adiskidetzeta eta konponketa lehenetsi beharko lirateke eta ez zigorra. Zigorrak balio hezitzailea eta ordaintzailea izan behar du, eginiko kaltearen onarpenean eta zuzenena kalte hori konpontzea delako ustean oinarritua. Gatazka bakoitza ikasteko aukeratzat hartu beharko litzateke.

Arauk prestatzeko prozedurari dagokionez, lehenetsuneko izango da haren baliagarritasuna ulertzea eta guztien onurako proposatzen direla onartzea.

Era berean adostu daitezke irizpide eta prozedurak komunitateko kideek izan behar duten harremanari buruz eta elkarbizitza eta balio-sustapena gehien errazten duten arau edo portaerei buruz. Elkartasuna tolerantzia edo enpatia berariaz sustatu beharreko balioak dira.


Ezar daitezke pertsonen arteko harremanen ezaugarriak eta garapenari buruzko irizpideak, irakasleen arteko harremanetarako printzipio orokorrak, eta baita irakasleen eta ikasleen arteko edota irakasleen eta familien arteko harremanetarako. Har daitezke akordioak ere jarrera eta portaera asertiboak sustatzeko; elkarbizitzaren kudeaketan ikasle, irakasle eta familia guztien parte-hartzea sustatzeko; ikastetxeko parte direlako kontzientzia eta sentimendua sortzeko; elkarbizitza curriculumean sartu dadin eta ebaluatua eta baloratua izan dadin emaitza akademikoetan. Azkenik, barne har daitezke ikastetxeko elkarbizitzaren bilakaera jaso eta ezagutarazteko moduei buruzko akordioak ere.

2.6.2. Jarduera-ildo orokorrak

Irizpideak zehaztu ondoren, jarduera-ildo orokor batzuk edo hurrengo ikasturteetan bereziki landuko diren alderdiak finkatu ahal dira. Horiek aldatzen joan daitezke denboran zehar, eta planean egiten diren aldaketetan islatuko dira. Dena den, kontuan izan behar da 201/2008 Dekretuaren 3. atala, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa, non elkarbizitzarako jarrera desagokiak, aurkakoak edo oso kaltegarriak zuzentzeko hezkuntza-neurriak biltzen diren.

Orokorrean, helburua ezagutza-, emozio-, portaera- eta harreman-mailan lan-ildoak aurkitzea izango litzateke; hau da, ikastetxeko elkarbizitza positiboa sustatzea, elkarbizitzarako oinarritzko arauak urratzen diren egoeretan hezkuntza-erantzuna ahaztu gabe.

Ondoren, jarduera-ildo orokorreko zenbait proposamen bost multzotan sailkatuta azaltzen dira:



1. multzoa. Estamentuen arteko zein barruko elkarbizitza sustatzeko ekintzak.

Eskola-komunitate osoko kideen arteko harreman positiboetan oinarrituriko elkarbizitza-giroa sustatuko dute, baita bera lortzeko guztien inplikazioa, partaidetza eta konpromisoa ere. Araudiaren kudeaketa egokia erraztuko dute; bere eskubideak erabiltzen eta betebeharrak betetzen ikastera bideratutako estrategiak eta prozedurak bultzatuko dituzte, ikasleek, eskubide osoko herritar modura gizarteratzeko beharrezko gaitasunak eskuratuz. Halaber zenbait balio sustatuko dituzte, hala nola, tolerantzia, berdintasuna, errespetua, elkartasuna edo enpatia.

- a) Elkarbizitza positiborako, eskola-komunitate osoaren **sentsibilizazioa eta inplikazioa erraztera** bideratutako ekintzak:
 - *Elkarbizitza Planaren prestaketa eta jarraipenean parte-hartzea eta erabakiak modu demokratikoan hartu ahal izatea bultzatzen duten eta hezkuntza-komunitateak bere gain har ditzakeen ekintzak:*
 - *Komunikazio-bide eraginkorrak.*
 - *Ikastetxeko partaide direlako sentimendua handitzeko protokoloak: harrera eta agurra, etab.*
 - *Hezkuntza-komunitate osoaren adostasuna eta parte-hartzea bermatzeko prozedurak.*
 - *Aldaketa baratza eta lasaiak, arrakasta izateko aukera handikoak.*
 - *Arauk prestatzen, gatazkak modu egokian kudeatzen eta elkarbizitza kudeatzen ikasleen parte-hartzea sustatuko duten ekintzak.*
 - *Familien parte-hartzea sustatuko duten ekintzak.*
 - *Aldizkako sentsibilizazio-ekintzak, adibidez, bakearen eguna.*
- b) Ikastetxean **elkarbizitza-giro ona** lortzera bideratutako ekintzak::
 - *Pertsonen arteko harreman positiboak sustatzeko, ikasgelako taldean kohesioa eta ikastetxeko partaide direlako sentimendua sortzeko ekintzak.*
 - *Irakasleen, ikasle eta ikasleen, irakasle eta familien arteko harremanak hobetzeko ekintzak.*
- c) Elkarbizitza positiboari buruzko hezkuntza-komunitate osoaren kultura eta hizkuntza bateratu bat lortzeko **prestakuntza**-ekintzak.
- d) Banakako eta taldekako **tutoretza**-ekintzak: elkarbizitza, egiturazko indarkeria eta gizarte-berdintasunaren eragileen ezagutza, *bullying* eta *ciberbullying-a*, eta gizarte-berdintasunarekin loturiko gaiak jorratzea.

- e) **Bakea eta elkarbizitza baketsurako** hezkuntza eta balioetan prestatzeko ekintzak.
- f) **Adimen emozionala garatzeko** ekintzak, gizarte-trebetasunak, **emozioak**, osasun psikologikoa enpatia, irizpide morala etab. heziz.
- g) Talde-lana sustatzen duten eta aniztasuna kontuan duten **curriculum-eta metodologiako ekintzak**.
- h) **Inklusioa**, ongizate emozionala eta **guztien hezkuntza-arrakasta** ziurtatzeko ekintzak: kide izatea, ikastearekiko motibazioa, metodologia-aldaketak, ikuspegi inklusiboa, etab.

 **2. multzoa.** Gatazken hezkuntza-kudeaketa, kontziliazioa eta konponketa errazteko eta elkarbizitza-konpromisoak sortzeko ekintzak.

- a) **Gatazkak etikoki kudeatzea** helburu duten ekintzak:
 - *Gatazken konponketa etikoari buruzko prestakuntza hezkuntza-komunitatearentzat.*
 - *Gatazkak beste bati pasatu beharrean, lehenbailehen heltzea.*
 - *Araudia sistematikoki lantzea, hezkuntza-komunitate osoarekin. Arau argi, positibo eta koherenteak.*
 - *Gatazkak sor ditzaketen egoeretan arreta berezia: jolastoki, eskola orduen arteko aldaketak, komunak, jangela...*
 - *Ezagutu eta erabiltzea, beharren arabera, gatazkak kudeatzeko lagungarriak diren hainbat baliabide, material eta protokolo: talde-kohesioa, negoziazioa, bitartekaritza, elkarrizketa-teknikak...*
 - *Gatazkan parte hartu duten aldean arteko kontziliazioa eta eragindako kaltearen ordaina sustatzea.*
- b) **Gatazken hezkuntza-tratamendua**
 - *Gatazka landu eta bere tratamendurako prozedura bateratuak ezartzea.*
 - *Bitartekaritza lantzea.*
 - *Gatazkak konpontzeko prozedura egituratuak.*
 - *Urratutako arauekin edo portaera desegokiekin loturiko hezkuntza-ekintza zuzentzaileen katalogoa prestatzea.*
- c) **Elkarbizitza positiborako konpromisoen** aldeko ekintzak.

3. multzoa. Elkarbizitza positiboarekin bat ez datozen jokabideak berriro bideratzeko ekintzak

Gure ahaleginak elkarbizitza positiborantz bideratu behar baditugu ere, zenbaitetan ondo kudeatzen ez diren gatazkak sortzen dira, eta hezkuntza-erantzun bat eman behar zaie. Oso garrantzitsua da aztertzea zein egoera eta testuinguruan sortu diren. Ahalegin handi bat egin behar da gertaera, arrazoi eta ondorioen hausnarketa sakon bat egiteko eta eragindako kaltea onartu eta kaltetua edo kaltetuari ordaintzeko. Gatazkak behar bezala konpontzen badira, elkarbizitza positiboko ezagutzak lortuko ditugu.

EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak bere baitan hartuko ditu garatzen diren ekintzak. Dekretu horretan bi prozedura-mota aipatzen dira:

a) **Prebentziorako** prozedurak eta jokabideak zuzentzeko **beste bide batzuk**.

Prozedura-mota horrek lehentasunezko izaera izango du. 201/2008 Dekretuaren III. kapituluan jokabideak zuzentzeko bestelako bideak garatzen dira, hau da, prozedura formaletik urrun dauden hezkuntza-neurriak, eta kontziliazioa eta ordainaren inguruan artikulatzen direnak, elkarbizitza hobetzeko esku-hartu duten ikasleen hezkuntza-konpromisoak ahaztu gabe..

b) **Neurri zuzentzaileak ezartzeko** prozedurak. Prozedura zuzentzaileak ezartzeko adostutako oinarritzko irizpideak.

IV. kapituluan, jokabide desegoki, elkarbizitzaren aurkakoak edo hura larriki eraso dezaketenak zuzentzeko neurriak ezartzeko prozedurak jasotzen dira. 1. atalean, prozedura zuzentzailea egituratzen duten xedapen orokorrak aipatzen dira. 2. atalean, jokabide desegokiak zuzentzeko baliatu beharreko prozedura lantzen da, irakasleak haiek ebazteko eskumena duen kasuetan. 3. atalean, ikastetxeko elkarbizitzaren aurkakoak diren edo hura larriki kaltetzen duten jokabideak zuzentzeko prozedura arrunta azaltzen da, eta xedatzen du zuzendaria dela prozedura hori erabiltzeko kargu eskuduna. Azkenik, 4. atalean, ezohiko prozeduren izapideak zehazten dira, hau da, azaltzen du zein kasutan izendatu behar den instrukzio-egile bat, ebazpen-proposamena egiteko.

Bigarren zehaztasun-maila batean, indarrean dagoen araudiaren arabera, ikastetxe bakoitzak lehen aipatutako alderdiak landuko ditu bere Antolakuntza eta Jarduera araudian edo Barne Araudian, Elkarbizitza Plana beteko dela bermatzen duten neurri guztiak barne hartuz.

Eskola-jazarpenaren esparruko egoerei dagokienez, *Hezkuntza sailburuordearen 2016ko urtarrilaren 18ko Ebazpenean, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarreko kasuetan zer jarduera-protokolo erabili arautzen duten jardunbideei buruzkoan*, protokolo hori oinarritzkoa eta arautzailea dela adierazten da; beraz, ikastetxe bakoitzak egokitu edo zabaldu ahal izango du haren testuinguruaren edo kasuaren berezitasunen arabera.

Halaber, Protokoloaren Hedapenari buruzko IV. Puntuan, aipatzen da ikastetxeak, bere Elkarbizitza Planean, berdinen arteko tratu txarre buruzko kontzientzia sortzeko eta Protokoloa ezagutarazteko prozedurak jasoko dituztela.

Ikusi edo ezagutzen den tratu txarren arloko edozein egoeraren aurrean jarraitu beharreko jardunbideak finkatuko dira, eta neurriak hartuko dira eskola-komunitateko kide guztiek jardunbide horien berri izan dezaten.

Beraz, ikastetxe bakoitzak aipatutako prozedura, neurri eta jardunbideak ezarri beharko ditu.

[4. multzoa. Berariazko planen prestaketa eta garapena](#)

Ikastetxeak alderdi jakin batzuk gehiago bultzatu nahi baditu, berariazko planak eratu ahal ditu. Adibide modura:

- a) **Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko plana.** Berdintasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida-Planaren arabera, ikastetxeak, eskola mistoa berdintasuneko eta genero-indarkeriari zero tolerantziako balioak sustatuko dituen hezkuntza-eskola bihurtzeko, lana egiteko helburuak ezarri behar ditu. Testuinguru horretan eta helburu horrekin, ikastetxeak aukera dezake: pixkanaka urteko planean helburuak sartzen joatea edo Hezkidetza Plan bat prestatzea, zeina Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren barnean egongo litzatekeen, eta urtero zehaztu ahal izango litzatekeen Ikastetxeko Urteko Planean sartutako helburuen bidez.. .
- b) **Hainbat alderdi lantzeko berariazko planak**, hala nola ikastetxeko kide izatearen sentimendua; baloreak lantzea; elkarbizitza garraioan, jangelan, jolastokietan, etab. Hezkuntza moraleko programak; elkartasun- eta lankidetzaren planak gobernu kanpoko erakundeekin, Bakea eta Elkarbizitzarako Plana, bullying-aren aurkako proiektuak, kulturartekotasun-planak, bitartekari-prestakuntza, ICTren erabilera arduratsua, sare sozialen erabilera egokia,...

5. multzoa. Ikastetxeko elkarbizitzaren bilakaeraren jarraipenerako prozedurak

Garrantzitsua da aldiro ikastetxeko elkarbizitza-egoerari buruzko datuak jasotzea, haien bilakaera zein egoera horiek konpontzeko erabili diren estrategiak eta lortutako arrakasta-maila aztertzea.

Datu horien azterketaren ondorioz, proposamenak landuko dira: elkarbizitza-giroa eta komunitateko kideen arteko harremanen kalitatea hobetzeko, eta komunitateak garrantzitsutzat jo dituen eta ikasleen gaitasunen artean egon beharko luketen balioak lortzen ari direla adierazten duten jokabide eta jarrerren gehitzea.

Horretarako, **prozedurak eta arduradunak** ezarri daitezke, hiruhileko edo ikasturte bakoitzean elkarbizitzaren aurkako gatazka-kopuruari, konpontzeko erabilitako estrategiei eta estrategia horiek ikastetxeko elkarbizitzan eta ikasleen ikasketetan izan duten eraginari buruzko **datuak jasotzeko**.

Erabaki daiteke soziograma edo sozio-bullying-a⁵ erabiltzea ere ikasgela barruko harremanen kalitate-maila jasotzeko, edo harreman horien jarraipena ebaluazio-bileretan aztertzea.

Halaber, zehaztu behar da nola jakinaraziko zaion komunitateari azterketa horren emaitza eta egin diren proposamenak, zein hezkuntza-komunitate osoa inplikatzeko erabiliko diren prozedurak.

→ ER 6.1etik ER 6.3era **adibideak** ikusi [64-66 orr.]

→ H 6.1 **tresna** ikusi [113 orr.]

2.7. Elkarbizitza Planaren urteko zehaztapena: urteko plangintza

Aurretik esan dugun moduan, Elkarbizitza Plana ikastetxean elkarbizitza positiboa garatzeko hezkuntza-komunitatearen asmoak eta epe labur edo luzean lortzeko estrategiak jasotzen dituen dokumentu estrategiko bat da. Ikuspegi horretatik, argi dago urtero zehaztapan bat egin beharko dela, pixkanaka Elkarbizitza Planeko helburuak lortu ahal izateko urtean zehar gauzatu beharreko helburuak eta ekintzak finkatzeko. Plangintza hori Ikastetxeko Urteko Planean jasoko da, gainerako urteko helburuekin batera.

Garrantzizkoa da kontuan izatea **urteko elkarbizitza-helburu** bakoitzeko, abiarazitako ekintza bakoitzaren eraginkortasuna jakin ahal izateko **lorpen-adierazleak** ezarri behar direla.

Era berean, **ekintzak dinamizatzeaz eta helburuen jarraipena eta azterketaz arduratuko** diren pertsonak izendatu behar dira, eta horrekin batera, **epekatzea, koordinatzeko era** edo beste edozein prozedura adierazi behar da.

⁵ Baliabide horiek eta ematen dizkiguten datuak tentuz erabili beharrekoak dira. Ikastetxeko edo Berritzeguneko laguntza-zerbitzuen aholkularitza gomendatzen da.

Ekintzei dagokienez, helburuak lortzeko eraginkortasunaren arabera aukeratuko dira. Hona hemen zenbait irizpide erabilgarri:

- Eskola komunitateko multzo handi bati eragin eta biltzen duten adostasun handiko ekintzak lehenestea.
- Ekintza errealista eta bideragarriak, erraz neurtu eta ebaluatu daitezkeenak aukeratzea.
- Modu argi eta eraginkorrean, proposaturiko helburuak lortzera bideratutako ekintzak aukeratzea.
- Lorturiko aurrerapenen finkapena bermatzea.

Agerikoa da ekintzen garapena ikasturte edo ziklo bakoitzeko arlo edo ikasgaien programazioetan agertu beharko duela, bereziki, tutoretza-programazioan, ikastetxeak martxan dituen proiektuak ahaztu gabe.

Elkarbizitzaren Behatokia izango da Ikastetxearen Urteko Planeko elkarbizitzarako helburuak eta ekintzak formalki proposatzeko ardura izango duen organoa.

Halaber, ikastetxearen Urteko Plana osatzen dutenez, elkarbizitza positiboarekin loturiko helburuak kontuan izan beharko dira, Irakasleriaren Prestakuntza Plana diseinatzean.

Azkenik, ekintzak garatu ondoren, urteko helburuak aztertu ta lorpen-mailaren ebaluazioa egingo da, erreferentziatzat dagozkien adierazleak hartuta. Ebaluazio hori, dagozkion ondorio eta hobekuntza-proposamenekin batera **Ikastetxearen Urteko Planaren Memorian** jasoko da, eta kontuan hartuko dira hurrengo ikasturteko Ikastetxearen Urteko Planeko elkarbizitza-helburuak prestatzean.

→ ER 7.1 adibidea ikusi [67 or.]

2.8. Zabalkuntza

Hezkuntza-komunitate osoak ezagutu eta partekatu behar ditu ikastetxean elkarbizitza hobetzeko bultzatutako neurri eta ekimenak; hori ezinbestekoa da, eta horretarako ahalik eta **prozedurarik erraz eta eraginkorrena eratu** behar da, **zeinak ziurtatuko duen planaren funtsezko printzipio eta alderdiak komunitateko kide guztiei iritsiko zaizkiela**.

Zabalkuntza-prozesua alda daiteke, planaren alderdien berariazko ezaugarrien edo jaso behar duten komunitate-kideen arabera. Horrela, Ikastetxeko Elkarbizitza Plana epe luzera burutzekoa denez, zabalkuntza-aldien arteko denbora luzeagoa eta bertsio desberdinetan (luzea edo laburragoa) izatea gomendatzen bada ere, urteko zehaztapenaren zabalkuntza, aldiz, nahitaez ikasturte bakoitzean egin behar da.

Bestalde, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxetako eskola-jazarpenerako egoeretan jarduteko Protokoloari buruzko Hezkuntza sailburuordearen 2016ko urtarrilaren 18ko Ebazpenaren bidez arautzen da eskolako jazarpenerako batean jarduteko protokoloaren zabalkuntza. Bertan aipatzen da: **“Elkarbizitza Planean zehaztuko da eskola-jazarpenerako kasuetarako ezarritako protokoloa hezkuntza-komunitateari ezagutzera emateko prozedura”**.

2.8.1. Elkarbizitza Planaren zabalkuntza

Hona hemen zenbait estrategia eskola-komunitate osoak Elkarbizitza Planaren berri izan dezan:

- Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren alderdiri nagusienak biltzen dituen laburpen-dokumentu erraz bat prestatzea. Dokumentu hori hezkuntza-komunitateko kide guztien eskura egongo da, eta sartzen diren berriek, arrera egiten zaienean, sistematikoki eskuratuko dute.
- Dokumentu honi galdetegi bat erantsi ahal zaio, dokumentuaren eduki eta baliagarritasunari buruzko hartzaileen iritzia jasotzeko, eta baita elkarbizitzaren hobekuntzarako proposamenak jaso eta ikastetxeko kidesun-sentimendua sustatzeko.
- Ikastetxek Elkarbizitza Planaren alderdi garrantzitsuenei eta urteroko zehaztapenei buruz hitz egin familiekin, ikasleekin, klaustroarekin, guraso-elkartarekin... egiten diren ikasturte hasierako bileretan.
- Ikastetxeko arlo guztietan ikastetxe eta ikastalde mailako jarduerak planifikatzea, Elkarbizitza Planean jasotako hainbat alderdiri buruz eztabaidatzeko, hala nola: araudia, jarduera-protokoloak, prebentzio-izaerako jarduerak, bibliografia, triptikoak, hitzaldiak, guraso-eskolak, etab.
- Programazio didaktikoetan, ikastetxearen funtzionamendua arautzen duten dokumentuak eta, bereziki, Elkarbizitza Plana ezagutzeko jarduerak sartzea.
- Elkarbizitza Plana eta bere laburpentxo bat Ikastetxearen web orrian esekitzea, eta iritziak, iradokizunak eta proposamenak idazteko aukera ematea.

2.8.2. Elkarbizitzaren Planaren urteko zehaztapenaren zabalkuntza: elkarbizitzarako helburu eta ekintzak, eta ebaluazioaren emaitzak.

Elkarbizitza Planaren urteko zehaztapena urteko elkarbizitza-helburuen bidez egingo da, eta horiek Ikastetxeko Urteko Planean sartuko dira. Horrela, Eskola kontseiluak edo OOGk onartu ondoren, eskola-komunitateko organo eta alderdi guztiei zabalduko zaie gainerako helburuekin batera.

Atal honetan zehaztuko da zer, nori eta nola jakinaraziko zaion. Aurkezteko modua desberdina izan ahal da, segun eta nori bidaltzen zaion. Tutoreek, adibidez, tutoretza-saio bat eskaini ahal diote ikasleen plana ezagutarazteari, informazioa adinari egokituz eta dinamika egokiak erabiliz; klaustroari ikastetxeko elkarbizitzaren arduradunak edo zuzendariak aurkez diezaioke; familiei ikasturte-hasierako bileretan, tutorearekiko bileretan edo gutun baten bidez eman ahal zaie informazioa.

2.8.3. Eskola-jazarpeneko protokoloaren zabalkuntza

Prozedura bat ezarri behar da, urtero behintzat, bermatu ahal izateko eskola-komunitate osoak jaso duela eskola-jazarpen kasuetarako protokoloaren berri.

Horretarako, ikasturte hasierako bileretako aztergaien artean sartu ahal da, edo harrera-prozesuetan eskaintzen den dokumentazioari erantsi ahal zaio.

Protokoloa ikasturte-hasieran ezagutarazteko ezarritako prozeduraz gain, komeni da, edozein unetan, eskola-komunitateko kide guztiek protokoloa eskuragarri izatea. Ikastetxeko web-orria oso aproposa izan liteke horretarako.

2.8.3. Hezkidetzeta eta Genero Indarkeriaren Prebentziorako Planaren zabalkuntza

Dokumentu hau ere hezkuntza-komunitateko kide guztiei ezagutarazi behar zaie, arreta berezia jarriz Hezkidetzeta eta Genero Indarkeriaren prebentziorako Gida Planean jasotzen diren alderdietan. Zabalkuntzarako gainerako planetarako aipatutako baliabide berak erabili ahal izango dira.

Dokumentuen zabalkuntza-prozedurak berarekin izan behar ditu dokumentu horietan jasotzen diren printzipioekin bat egiten lagundu eta azterketa eta hobekuntzan parte hartzea sustatuko duten sentsibilizazio-jarduerak.

→ **ER 8.1 adibidea** ikusi [68 or.]

→ **H 8.1 tresna** ikusi [115 or.]

2.9. Jarraipena eta ebaluazioa

Aldian-aldian, Elkarbizitza Planaren eraginkortasuna neurtzeko tartetxo bat hartu beharko da, emaitza positiboa ez balitz aldatzeko edo eguneratzeko eta sortzen diren egoera berrietara egokitzeko. Aztertze eta baloratze-prozesu horrek sistematizatu izan behar du ikastetxeak bere helburuak lortzen dituela bermatzeko eta elkarbizitzaren hobekuntzan aurrera egiteko.

Urteko elkarbizitzako helburuen ebaluazioaren emaitzak oinarrizko erreferentziak izango dira Elkarbizitza Planaren ebaluaziorako. Behar beharrezkoa da arduradunak, prozedura eta azterketa eta ebaluazioaren maiztasuna zehaztea. Aldizka alderdi hauek gainbegiratuko dira:

- Hezkuntza-komunitateak Elkarbizitza-Planari buruz duen ezagutza-maila.
- Zabalkuntza- eta sentsibilizazio-prozeduren eraginkortasuna.
- Elkarbizitza Planaren ezarpen-maila. Zailtasunak dauden kasuetan arrazoiak azterketa.
- Urteko helburuen lorpen-maila eta Elkarbizitza Planeko helburu orokorrak lortzeko izan duten eragina.
- Planak hezkuntza-komunitatearen ezaugarri eta beharrei zentzuzko erantzun dien, denboran zehar alda baitaitezke. Proposatutako helburu eta ekintzak ikastetxearen ezaugarri (testuingurua, ikasle-tipologia, arazo ohikoenak...) egokitzen zaizkien.
- Bide egokiak ezarri eta errazten ari diren Elkarbizitza Planean zehazten diren helburuak abiarazteko. Proposaturiko helburuak eta jarduerak bat datozen hezkuntza-komunitateak adostutako elkarbizitzaren definizioarekin.
- Ikastetxeko elkarbizitzaren bilakaera eta joerak.
- Behar bezalako elkarbizitza positiboarekin loturiko ikastetxeko alderdi guztiak jasotzen dituen.
- Eguneratuta dagoen, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Interesgarria da ikasturtez-ikasturte ezarritako helburu orokorrak ikustea. Horrela jakingo baitugu planifikazioa eta urteko zehaztapenerako prozedura eraginkorrak diren eta planaren helburu guztien lorpen etengabea bermatzen duten, edo helburu orokorrak aldatu eta ikastetxeko egoerari hobeto egokitzen zaizkion beste batzuk ezarri behar diren.

→ **ER 9.1 adibidea** ikusi [70 or.]

→ **H 9.1 tresna** ikusi [117 or.]

2.10. Eranskinak

Elkarbizitza Planean sartu ahal izango dira zenbait dokumentu, eranskin gisa, edo aipamen soila eginez, elkarbizitzarekin zerikusia duten dokumentuak badira eta onartuak izan badira. Adibidez, hauetako batzuk sar daitezke:

- OOGren onarpen-akta (akta eransten ez bada, plana onartu zeneko bilera-data adieraztea gomendatzen da).
- Harrera-planak.
- Gertakariak edota ikasleen jokabide desegokiak jasotzeko prozedura.
- Ikastetxeko elkarbizitzaren egoera jasotzeko protokoloa, adibidez, elkarbizitza-postontziaren erabilerari buruzko prozedurarik adostu den.
- AJA/BAren erreferentziak, jangela eta garraioaren erabilerari , eskolaz kanpoko jardueretan parte-hartzeari, jolasaldiei eta abarri buruzko araudiari dagokionez, edo hezkuntza-komunitateko kideren batek elkarbizitza urratu duela jakinez gero jokatzeko moduari buruz.
- Elkarbizitza Planaren zabalkunderako dokumentuak.
- Ikastetxeko elkarbizitzaren bilakaera.
- Lortutako helburuen edo jarduera aipagarrien historikoa.
- Berriazko beste plan batzuk, adibidez, Hezkidetza eta Genero Indarkeriaren Prebentziorako Plana.

→ ER 10.1 eta ER 10.2 adibideak ikusi [72 eta 73 orr.]

3. Gehiago jakiteko

- ⬇ Elkarbizitza eta bakerako hezkuntza EAEko ikastetxeetan. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2004.
<http://goo.gl/wR00C5>
- ⬇ Elkarbizitza Behatokia Sortzeko eta Urteko Elkarbizitza Plana egiteko Gida. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Vitoria-Gasteiz, 2008.
- ⬇ Elkarbizitza Planak prestatzeko eta landutakoak eguneratzeko jarraibideak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Pedagogia Berritzatzeko Zuzendaritza Vitoria-Gasteiz, 2010.
- ⬇ Elkarbizitza Plana egiteko ereduak: jarraibideak. Berritzegune Nagusia, 2010-2011. <http://nagusia.berritzeguneak.net>
- ⬇ Guía para la elaboración del Plan de Convivencia. Junta de Andalucía, 2007
<http://goo.gl/EY6gev>
- ⬇ Ejemplo de autodiagnóstico. Observatorio Estatal de la Convivencia Escolar.
<http://goo.gl/QgmU9N>
- ⬇ Orientaciones para la elaboración del Plan de Convivencia de los Centros Educativos. Gobierno de Cantabria. <https://goo.gl/bdrPAX>
- ⬇ Dossier: Diagnóstico Integral de la Convivencia Escolar (Manuel Caño Delgado, Plan Andaluz de Educación para la Cultura de la Paz y No violencia).
- ⬇ Elkarbizitza planetarako orientabideak, eskarmentu handiko gure ikastetxeetako praktikan oinarrituak. Ilikuskaritza, Hezkuntza eta Berritzeguneak, 2010.
- ⬇ Elkarbizitza Behatokia Sortzeko eta Urteko Elkarbizitza Plana egiteko Gida. Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila, Vitoria-Gasteiz, 2011.
- ⬇ Ikaskideen arteko tratatu txarrak Euskadin. ISEI-IVEI, 2012. <http://goo.gl/V0BnmO>
- ⬇ Trabajando la convivencia en los centros educativos. Una mirada al bosque de la convivencia. Pedro M^a Uruñuela, 2016.

ERANSKINAK

**Elkarbizitza Plana
egiteko adibide eta
tresnen eskema**

	PLANAREN ATALA	EDUKIA	ADIBIDEAK	TRESNAK
1. SARRERA	SARRERA	<i>Elkarbizitza Plana, zergatik eta zertarako?</i>	ER 1.0.1 [47] ER 1.0.2 [49]	
	1.1. Ikastetxearen ezaugarriak		ER 1.1.1 [50] ER 1.1.2 [51]	
	1.2. Lantze-prozesuaren deskribapena		ER 1.2.1 [52] ER 1.2.2 [54]	H 1.1 Planaren lantze-prozesua deskribatzeko gidoia [77]
	1.3. Ikastetxeko beste dokumentu batzuekiko lotura			
2. BIZIKIDETZAREN DEFINIZIOA		<i>Nolako elkarbizitza nahi dugu? Zer balio sustatu nahi ditugu?</i>	ER 2.1 [55]	H 2.1 Gure definizioa elkarbizitzari buruz. [79] H 2.2 Gure definizioa elkarbizitzari buruz [83]
3. IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN DIAGNOSIA		<i>Nolakoak gara? Nola gaude? Zer egin dugu orain arte?</i>	ER 3.1 [56] ER 3.2 [57]	H 3.1 Irakasleak [87] H 3.2 Ikasleak [95] H 3.3 Familiak [99] H 3.4 Adm.-Zerb.[103] H 3.5 Laburpena [107]
4. HELBURU OROKORRAK		<i>Zer lortu nahi dugu?</i>	ER 4.1 [58]	H 4.1 Zergatiak helburu bihurtzen [109]
5. HELBURUEN LORPENA BULTZATZEKO EGITURAK	<i>Nola egingo dugu?</i>		ER 5.1 [60] ER 5.2 [61]	
6. JARDUERA-IRIZPIDE ETA -ILDO OROKORRAK		ER 6.1 [64] ER 6.2 [65] ER 6.3 [66]	H 6.1 Helburuen eta jardueren-ildo nagusien arteko lotura [113]	
7. ELKARBIZITZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA		ER 7.1 [67]		
8. ZABALKUNTZA		<i>Hezkuntza-komunitate osoak ezagutzen du?</i>	ER 8.1 [68]	H 8.1 Elkarbizitza Planaren zabalkuntza [115]
9. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA		<i>Gure helburua lortzen ari gara?</i>	ER 9.1 [70]	H 9.1 Elkarbizitza Planeko helburuen jarraipena eta ebaluazioa. Helburuen bilakaeraren erregistroa. [117]
10. ERANSKINAK		<i>Elkarbizitza Planari loturiko beste dokumentu batzuk.</i>	ER 10.1 [72] ER 10.2 [73]	

**Ikastetxearen
Elkarbizitza Plana
egiteko adibideak**

1. SARRERA

Elkarbizitza Plan hau elkarbizitzaren inguruko gure antolaketa eta funtzionamendua zehazten duen EGUZKILORE Institutu Publiko Integratuaren dokumentuetako bat da. Berak ezartzen ditu gure hezkuntza-komunitateak partekatzen duen elkarbizitza-ereduaren ildo nagusiak, lortu nahi ditugun helburuak, horiek lortzeko eta plana bera ebaluatzeko egokiak iruditzen zaizkigun jarduerak.

Ikasturte bakoitzean, Urteko Planean, lehenetsi nahi ditugun elkarbizitza-helburuak zehaztuko ditugu eta helburu horiek lortzeko berariazko ekintzak antolatuko ditugu.

Plan hau lantzean kontuan izan ditugu gure komunitatean indarrean dagoen araudia eta **ikastetxea antolatzeko eta kudeatzeko gure dokumentuak**.

2012-2013ko ikasturtean onartutako IHPko helburuen artean elkarbizitza positiboaren sustapena aipatzen da, gatazkak konpontzeko elkarriketa, errespetua eta komunikazioa erabiliz eta elkarbizitza urratzen duten egoerak saihesteko prebentzio-jarduerak garatuz.

2013-2014 ikasturtean onartutako AJAn azpimarratzen dira elkarbizitza sustatzeko eta gatazkak konpontzeko prozedurak, eta ikasleen parte hartzea sustatzen du ikastetxeko elkarbizitza-araudiaren prestaketan.

Tutoretzako Ekintza Plana (TEP) lehen mailako baliabidea da proposaturiko elkarbizitza-helburuak lortzeko ekintzen garapenerako.

Beste aldetik, azken ikasturteetako urteko memoriak argi azaldu dute elkarbizitza positiboaren eta gatazken prebentzioaren garapenerako egituren antolaketa indartu beharra, eta helburu zehatz eta errealistagoak formulatzearen egokitasuna.

Plan honen **helburua** da, denen adostasunez, gure ikastetxerako nahi dugun elkarbizitza-eredua definitu eta bideratzea. Gure ustez, elkarbizitza positiboa, berez hezkuntzaren helburu bat izateaz gain, irakasteko eta ikasteko prozesuak hobetzen dituen eskola-giroaren oinarria da, eta eragin zuzena dauka ikasleen emaitzen hobekuntzan.

Ondorioz, Plan hau pizten duten printzipio eta balioak hauek dira:

- Pertsonenganako eta denon artean adostutako arauetako errespetuan oinarrituriko elkarbizitzaren sustapena.
- Komunitateko estamentu guztien kooperazioa, konpromisoa eta erantzukizuna bizitzeko ikastetxe egoki, segurua eta hezigarri bat lortzeko.
- Ikasle guztien integrazioa, beren ezaugarri pertsonalak eta sozialak zeinahi izanik ere.
- Gatazkak modu baketsuan ebaztea, elkartasuna eta enpatia.

Hitz batean, lortu nahi duguna da gure ikasleek ezagutu eta praktikan jar ditzatela eskolatzearen amaieran lortzea espero dugun balio, jarrera eta portaerak.

1. SARRERA

(IPI) EGUZKILORE ikastetxearen hezkuntza-proiektuak, besteak beste, helburu hauek ditu:

1. Gure ikasleek tolerantzia, errespetua, askatasuna eta elkartasuna bezalako baliok barneratzea, balio horiek landu, garatu eta gaurko munduan duten esanahia eta ondorioak ulertzea bideratutako jardueren bidez. Balio horiek erreferentzia izango dira eguneroko lanean.
2. Ikasleen, irakasleen, gurasoen eta irakasleak ez diren langileen arteko partaidetza, elkarbizitza, eta elkarrekiko errespetuaren sustapena, ikasteko eta elkarbizitzarako benetako komunitate bat osatzeko.

Elkarbizitza Plana aipatutako helburuak lortzeko funtsezko tresna izango da.

Antolakuntza eta Jarduera Araudian, dagokien atalean, elkarbizitza-arauak, neurri zuzentzaileak etab. aipatzen dira, zeinak plan honetan jasotako printzipio eta jarraibideekin bat etorriko diren.

Tutoretzako Ekintza Plana (aurrerantzean TEP) eta bertan jasotzen diren helburuak estuki loturik daude Elkarbizitza Plan honekin.

Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP), metodologia /aniztasunaren arreta /... atalean bat dator plan honetan definitutako elkarbizitza-ereduarekin (adibidea: metodologia aktiboak- elkarrekintza taldeak, metodologia kooperatiboak erabiltzea)

Elkarbizitza-plan honek gure ikastetxeko elkarbizitzaren diseinu bat izan nahi du, eta organo eskudunek adostutako proiektu eta planekin bat datorren garapen- eta kudeaketa-bideak ezarri eta sistematizatzen ditu.

1.1. Ikastetxearen ezaugarriak¹. Testuingurua

Ikastetxe honek hamar urte baino gehiago daramatza elkarbizitzarekin loturiko gaiak lantzen, eta DBH abiarazi zenetik lehentasunezko lan-ildo bihurtu da; hezkuntza komunitateak beharrezkotzat jotzen baitzuen alderdi horri lehenbailehen heltzea.

Hauek dira orain arte landutako zenbait gai: [ardura eta begirunezko harreman positiboak / Ikastetxeko ikasgeletako araudiak / irakasle, ikasle eta familien partaidetza eta inplikazio / elkarbizitza positiboa kudeatzeko trebetasun pertsonalak eta sozialak / eskolako jazarpena eragotziko duen kultura baten sorrera, etab.].

Gaur egun, ikasleek [ikastetxeko bizimoduan modu aktiboan parte hartzen dute, ordezkari, lantalde, batzorde eta abarren bidez (izendatu) / ikastetxearen martxari buruzko gaietan parte hartzea zaila egiten da / hauteskunde-kanpainak antolatzen ditugu ikasgelako, ordezkari izateko hautagaien artean / Gero eta pasibotasun handiagoa antzematen da ikasgelako ordezkari izateko edo ordezkariak aukeratzeko unean].

[ikasleen / irakasleen / familien /...] partaidetza Ordezkaritza Organo Gorenean: [positiboa / aktiboa / ez da nahikoa / batere ez]. Ikastetxeko ikasleen absentismo-indizea: [handia / txikia / arrunta]. Ikasturtea errepikatu behar duten ikastetxeko ikasleen batezbestekoa [%10] ingurukoa da. Laguntza-premia bereziak dituzten ikasleen batezbestekoa [%8] da.

Familia gehienekin harremana honelako da: [ona / estua / arrunta / txikia / ez dago].

Irakasleak ez diren langileak [aktiboki parte hartzen du / gehienetan ez du parte hartzen] ikastetxearen kudeaketan. Ikasturtean zehar hainbat koordinazio-bilera egien dira, honako gai hauek eztabaidatzeko: sarrera-irteera korridore eta abarretan arauak betetzen ote diren ikusteko jarraipenak egin.

Ikastetxeko guneak [nahikoak dira / ez dira nahikoak] ikastetxean elkarbizitza positiboa garatzeko, jolasgaraian jolastokia zaintzen duenarentzat gune kontrolaezinak daudelako / ez dagoelako gune kontrolaezinik, etab. Oro har ikastetxeko elkarbizitza-giroa honela sailka dezakegu: [oso ona / ona / onargarria / hala moduzkoa / tentsiozkoa / zaila /ez dago].

Elkarbizitza-gaietan ikastetxeak eskarmentu [luzea / ertaina / motza] du: [XX-XX ikasturtean Elkarbizitza Behatokia sortu zuen / ikasleen arteko bitartekari talde bat sortu du / landua du edo lantzen ari da harrera-plan bat (irakasle / ikasle / familia / langile) berrientzat / ez du orain artean jarduera esanguratsurik gauzatu].

¹ Bizikidetzaren Planean ikastetxearen datu orokorrak soilik jasoko dira, baldin eta elkarbizitzarako garrantzitsuak badira. Alde horretatik, auzo batean edo bestean egotea garrantzizkoa izan daiteke, bai eta irakasle finkoaren eta behin-behinekoaren arteko aldea, etab.

1.1. Ikastetxearen² ezaugarriak. Testuingurua

Badira hamarkada batzuk gure ikastetxeak bere IHPko helburu nagusitzat ezartzen duela kalitatezko irakaskuntza ematea ingurune bizigarri, seguru eta hezkuntzazko batean.

Mota askotako familiak daude, eta gehienak seme bat edo biko familia tradizionalak badira ere, azken urteetan bestelako familia-egitura duten ikasle-kopurua hazi egin da. Gurasoek, orokorrean, lehen edo bigarren mailako ikasketak dituzte, eta neurri txikiagoan unibertsitate-ikasketak. Etxeen erditan baino gehiagotan ordenagailua dute, eta, orokorrean, nahiz eta irakurtzeko ohiturarik ez izan, badituzte eleberriak, dibulgazio-saiakerak etab.

Neskek mutilek baino sarriago parte hartzen dute etxeko lanetan, eta aisialdiko jarduera desberdinak aukeratzen dituzte, mutilek neskek baino sarriago kirol-jarduerak aukeratzen dituztelarik. Telebista eta bideo-jokoak, denbora-pasa modura, maila bertsuan erabiltzen dituzte neskek zein mutilek.

Ikasleen %30k baino gehiagok eskolaz kanpoko jarduerak ikastetxean bertan egiten ditu, eta %10k ikastetxetik kanpo. Lautik bat curriculumari loturiko eskola partikuletara joaten da, batez ere, ingeleseko eskoletara.

Familiak, orokorrean, garrantzia ematen diete ikasketei, eta gehiago erreparatzen diote errendimendu akademikoari, integrazioari edo ikaskideekin harremanak izateko dituzten zailtasunei baino. Ikasgelako bileretara eta tutoreekin dituzten elkarrizketetara joaten dira, eta gehienak Guraso Elkartean daude. Halere, gutxi batzuek hartzen dute parte ikastetxeak antolatutako jardueretan (gurasoen eskola, eskolaz kanpoko jardueren antolaketa, etab.).

Klaustroan eginiko galdeketaren arabera, irakasleen esku-hartzea eskatzen duten portaerak, nagusiki, hauek dira:

- Distrazioak, ikaskideekin hitz egitea, eskola-orduetan irakasleak agintzen dituen zereginak egin beharrean bestelakoak egitea. Eskola etetea.
- Etxerako lanak egin gabe etortzea edo beharrezko tresneria ahaztea.
- Hiztegi zikina, behar ez bezalakoa, berdinen arteko harremanetarako desegokia, isekak.
- Neurri txikiagoan, irainak, zantzu sexista edo arrazista duten isekak etab. Borroka gutxi izaten dira. Urtero, batez beste, ustezko sei jazarpen-kasu salatzen dira, baina soilik kasu batek edo bik betetzen dituzte jazarpenetzat hartzeko beharrezko ezaugarriak.

Azken batean, gure ikastetxean elkarbizitza lehentasunezko gaia da, baina joerak antzematen ditugu; asko eta asko bizitzen ari garen gizartearen isla dira, kezkatzen gaituztenak eta modu sistematiko eta eraginkorragoan aztertu nahi ditugunak Elkarbizitza Plan honen alorrean.

² Adibide honetan, ikastetxearen elkarbizitzarako ezaugarrietan jartzen da, ikastetxearen beste zenbait alderdi orokor eta bestelako datuak, hala nola, kokapena, ikasle-kopurua etab. alde batera utzita..

1.2. Elkarbizitza Plana egiteko jarraitutako prozesuaren deskribapena

Gure Elkarbizitza Plana egiteko jarraitu dugun prozesua honako hau da:

1º Sentsibilizazio-fasea. 2012-2013 ikasturteko lehen hiruhilekoan zehar, ikasleekin (2 tutoretza-saiotan aztertu zen gaia), irakasleekin (klastroak bi bilera egin zituen, Berritzeguneko erreferentziazko pertsonak parte hartu zuelarik), familiekin (aditu bat ekarri zen solasaldi bat emateko) eta irakasleak ez diren langileekin (familiekin egindako solasaldira eta klastroaren bileretara gonbidatuak izan ziren).

2º Diagnosi-fasea. Ikasturte bereko bigarren hiruhilekoan lehen aipatutako talde bakoitzari galdeketa bat eman zitzaion. Galdeketa emaitzak hirugarren hiruhilekoaren hasieran jakinarazi ziren. Ikusi galdeketa eta emaitza-taulen ereduak plan honen eranskinetan.

3º Helburuen zehaztapena eta jardueren plangintza

Hirugarren hiruhilekoan, talde bakoitzak helburu-zerrenda bat osatu zuen, lehentasun hurrenkeraz ordenatua, eta gero lantalde misto bat eratu zen (irakaslea/ikaslea/aita/ama-irakasle ez den langilea), Elkarbizitza Planeko helburu orokorrak aukeratu eta lehenesteko, ondoren gauzatu beharreko ekintzak, haien epekatzea, zehaztapenak, bakoitzaren arduradunak etab. planifikatzeko.

Prozesuan zehar hainbat lantalde eratu ziren: a) Irakasle-taldea, tutoreek osatua. b) Ikasle-taldea, ordezkariak osatua, c) Guraso-taldea , hiru aita eta hiru amek osatua, d) Irakasleak ez diren langileak, lau lagunek osatua, e) Talde mistoa, hamar lagunek osatua; f) Elkarbizitza Plana idatzi eta ezagutzera emateko taldea, lau lagunek osatua. Talde bakoitzaren partaidetza- eta inplikazio-maila izan zen [oso ona/txikia/aldakorra].

Lan-saioen dinamikaren ezaugarri nagusia testu baten, galdeketa baten edo inkestean bidez jasotako datuen estatistikei buruzko hausnarketa izan [talde txikian/handian]. Adostasunera iristeko dinamikak erabili ziren: [talde nominalaren teknika / 1-2-4-8 /...]. Halaber, Planari erakarpen bateratuak egiteko moduei buruzko akordioak bildu ziren. Diagnosi-fasean galdeketa erabili ditugu familia, irakasle, ikasle eta (AZL) administrazio eta zerbitzuetako langileen ekarpenak eta datu kuantitatiboak biltzeko.

Lantalde bakoitzarentzat berariazko prestakuntza-saioak eta hezkuntza komunitate osoari zuzenduriko mahai-inguru bat antolatu dira.

Prozesu osoan zehar arrakasta gehien izan duten jarduerak hauek izan dira :

- Hezkuntza-komunitatearen partaidetza handia, proposaturiko galdeketei erantzutean. (ehunekoak estamentuka zehatz daitezke).
- Inkestean bidez jasotako datuei buruz lantaldeek eginiko hausnarketa.
- Erabakiak batera hartzea, hala nola, helburuen lehentasuna ezartzean / jarduerak proposatzean... talde mistoan.
- Berariazko tutoretza-saioetan lortutako ikasleen sentsibilizazioa eta inplikazioa.

- Prestakuntza-saioak, [...] emanak.
- Elkarbizitza positiboari buruz, hezkuntza-komunitatean sorturiko giroa.
- Lantaldeetan erabaki adostuak hartzera iritsi izana.
- [...]

Lehentasunezko gaitzat hartu zirenak hauek dira:

- Gatazken hezkuntza-kudeaketa.
- Hezkuntza-komunitateak ikastetxeko bizitzan parte hartzeko bideak .
- Genero-berdintasuna eta aniztasun afektibo-sexualarekiko errespetua, elkarbizitza positiborako giltzarriak.
- Emozioen kudeaketa.
- Elkarbizitza positiboaren aldeko proposamen didaktikoak.
- [...]

OOGk Elkarbizitza Plana onartu du, uuuu/hh/ee/(e)an.

Ezagutzera emateko honako jarduera hauek antolatu dira:

- Ikastetxeko webgunean jarri da.
- Webgune berean iradokizunen postontzia jarri da.
- Guraso-elkarteari aurkeztu zaio, uuuu/hh/ee/(e)an.
- Ikasle ordezkarien batzordean landu da, uuuu/hh/ee/(e)an.
- Ikastetxeko talde guztietan landu da, tutoretza-saio batean.
- Ikasturte-hasierako bileran familiei aurkeztu zaie.
- Eskolako agendan helburuen laburpena sartu da.
- Ikastetxeko iragarki-tauletan dokumentuaren laburpen bat jarri da.
- Dokumentuaren kopia bidali zaie [ikastetxeko ikuskariari/prestaketa-prozesuan parte hartu duen zonaldeko berritzeguneko erreferentziazko pertsonari/ eta abarri].

1.2. Elkarbizitza Plana egitean jarraitutako prozesuaren deskribapena

Plan hau egiteko ekimena zuzendaritza-taldean sortu zen 2012-2013 ikasturtean, ikasgelako elkarbizitza-arazoei heltzeko irakasleek estilo desberdinak zituztelako. Arazo hauei aurre egiteko, Antolakuntza eta Jarduera Araudia edo Barne Araudia baino esparru zabalago batean koherentziaz ekiteko beharra gailendu zitzaion arauen berrikuspen soilari, eta asmo handiko proiektu bihurtu zen. Zuzendaria izan zen hasieratik proiektuaren buru, eta batzorde bat izendatu zuen prozesuaren plangintza egin eta dinamizatzeko.

Sei aldi edo garai bereizten ditugu: sentsibilizazioa, diagnostia, plangintza, plana idaztea, onespina eta zabalkundea.

a) Sentsibilizazioa. Elkarbizitza eta hobekuntza aukeren gogoeta egite aldera, funtsezko zenbait alderdiri heldu zitzaion, hala nola, elkarbizitza-kontzeptuari; diziplinari; arazoei; familia eta inguruarekiko harremanari; hezkuntza emozionalari; enpatiari.

Aldi hau 2013ko iraila-urrian burutu zen. Lau prestakuntza-ordu egin ziren; world-kafe teknika erabili zen irakasle eta ikasleekin; tutoretza-orduetan bideoak jarri ziren; solasaldi bat antolatu zen gurasoentzat, eta bukatzeko, bi bilera egin ziren irakasleak ez diren langileekin eta jangelako langileekin.

b) Diagnostia. Elkarbizitzaren azterketa sakonari heldu zitzaion. Zer gertatzen den, zergatik, zer hobetu behar dugun eta zer lortu nahi dugun aztertu zen.

2013ko urriaren amaieratik abendura arte zenbait inkesta egin ziren eta emaitzak argitaratu ziren ikastetxeko webgunean.

c) Plangintza. Elkarbizitza-eredua finkatzeko, plan honen oinarri diren printzipioak antolatzeko, helburuak eta oinarritzko jarduera-ildoak aukeratzeko sailkako bilerak antolatu ziren, ikastetxeko webgunean foro bat eratu zen, tutoretza-saioretan aztertu zen.

Aldi honetan funtsezkoa izan zen material et gidioen prestaketan, proposamenak egiten eta iradokizunak egiten batzordeak burututako lana.

Aldi honek 2013ko urtarriletik martxora bitartean iraun zuen.

d) Plana idaztea. Batzordeko bi lagun arduratu ziren dokumentuaren idazketaz. Aurretik zirriborroa webgunean jarri zen azken orduko iradokizunak eta ekarpenak egiteko.

e) Planaren onespina. Ikasgela bakoitzeko ordezkariak bere taldeari aurkeztu zion plana, eta onarpenera bozkatu zuten. Zuzendariaren lana izan zen klaustroari (uuuu/hh/ee) eta OOG edo Eskola Kontseiluari aurkeztea (uuuu/hh/ee).

f) Zabalkundea. Hezkuntza-komunitate osoari eman zitzaion planaren berri. Denei eskatu zitzaion proposaturiko helburuak lortzeko konpromisoa. Hori maiatzaren amaieran ospatzen den kulturartekotasunaren festaren inguruan gauzatu zen (uuuu/hh/ee).

2. BIZIKIDETZAREN DEFINIZIOA

1. definizioa:

"Ikastetxean, elkarbizitzaz ulertzen da hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko harremanek osaturiko sarea, non komunikazioa, sentimendua, balioa, jarrera, rola, estatusa eta boterearen prozesuak eratzen diren." (R. Ortega, 1997).

2. definizioa:

"Hezkuntza-komunitateko kideen arteko elkarbizitza baketsua; alegia, haien arteko harreman positiboa, eta hezkuntza helburuak, ikasleen garapen integralaren aldeko giroan, behar bezala bete ahal izateko aukera ematen duena". (Hezkuntza Ministerioak Eskola Elkarbizitzari buruz).

3. definizioa:

Eskola-erakundeetan sortzen den harreman-giroa da. Esan dezakegu denbora/leku batean (eskola) ideia edota helburu batekin (heziketa eta ikasleen prestakuntza) garatzen den gizarte-harremanen sare bat dela, eta bertan parte hartzen duten eragileei (irakasleak, ikasleak, familiak, irakasleak ez diren langileak) dei egiten die lankidetzan aritzeko gai izan daitezen; hau da, batera lan egin dezaten eta elkarri lagun diezaioten kideen arteko harremanak eta loturak sortzen.

4. definizioa:

Elkarbizitza positiboa hezkuntza-komunitateko kide guztien partaidetza sustatzen duena da, gizarte- eta harreman-arauak adostuz, arazoak konpontzeko azterketa-gune eta uneak sortuz eta ikastetxeko proiektuaren parte sentituz.

5. definizioa:

Eskolako elkarbizitzak, gure ikastetxean, Hezkuntza Komunitateko kideen arteko harremanak arautzen ditu: ikasleak, irakasleak, familiak, zuzendaritza-taldea, irakasleak ez diren langileak, ikastetxean eragiten duten edo lankidetzan ari diren erakundeak...; eta proiektuan adierazten den bezala, ikasleen garapen integrala eta soziala lortzeko jarduerak elkarri jakinarazi eta koordinatzeko helburua du. Gure ikastetxeko elkarbizitza positiboak, oinarri hauek ditu: ikuspegi inklusiboa, onarpena, desberdintasunak errespetatzea, partaidetza, elkarrizketa,sozializazioa... eskola-giro positiboa lortu eta zaintzeko.

3. IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN DIAGNOSTIKOA

Gure [ikastetxeko / eskolako / institutuko / ikastolako] elkarbultzaren egoerari buruzko datuak jasotzeko prozesuan, zenbait inkesta burutu ziren, eta alderdi hauei buruzko iritziak jaso ziren:

- Ikasgeletan eta, oro har, ikastetxean bizi den elkarbultzaz-giroa.
- Irakasleen eta ikasleen arteko harremana, ikasleen artekoa, irakasleen eta familien artekoa, irakasleak ez diren langileen eta familia edo ikasleen artekoa, irakasleen eta irakasleak ez diren langileen artekoa.
- Ikastetxean edo ikasgeletan jasotako arauari buruzko gogobetetze- edo desadostasun- maila eta betetze-mailari buruzko iritzia.
- Aztertu beharreko alderdirik premiazkoenak elkarbultzaz eta harremanei dagokienez.
- Dagoeneko ezarri diren jarduerak (ikasgelako bilerak, Tutoretza Jarduerako Plana, iradokizunen postontzia, zuzendaritza-taldearen, irakasleen, irakasleak ez direnen, ikasleen edota familien arteko komunikazio-kanalak, elkarbultzaz sustatzeko eskolaz kanpoko jarduerak, etab.).
- Harreman-gatazka gehieneko gune edo uneak ematen dutenak.
- Irakaskuntza-estilo edo -jarduerak, denen partaidetza sustatzen duten irakaskuntza-metodologiak eta -ikuspegiak.
- Ikastetxean, arazoak sortzen dituzten ikasleekin erabili ohi diren neurri zuzentzaileak / zigorrak.

Inkesten emaitza honako hau izan zen:

- **IRAKASLERIA:** Irakasleen %65k ikastetxean elkarbultzaz ona edo oso ona zegoela erantzun zuen. %30k uste du hobetu ahal dela. %5k ez du erantzunik ematen. Klaustroaren erdiak baino gehiagok uste du familiekiko harremana hobetu behar dela. % 10k uste du ikastetxeak ikasleen arteko gatazkak konpontzeko duen modua [zuzena / okerra / hobetu behar da / dagokiona...] dela.
- **IKASLERIA:** ikasleen %15 pozik dago ikastetxeko elkarbultzaz positiboaren mailarekin. %35k uste du ez dela ona. % 10 sentitu da noizbait [beldurtuta /ez seguru /gaizki] ikaskide edo irakasleren batek emaniko tratuaengatik.
- **FAMILIAK:** familien %60k uste du ikastetxeko araudia [zuzena / zorrotza / desegokia] dela. Familien %10k nahiko luke gai hau sarriago jorratzea ikasgelan. Familien %10k beharrezkotzat jotzen du gurasoentzako Internet bidezko jazarpenari buruzko prestakuntza..
- **IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEAK:** %50k babesik gabe sentitzen dela ikasleen jarrera txarren aurrean. %50k uste du ikastetxeko elkarbultzaz ona dela. %50k hezkuntza-komunitatearen babesa nabaritzen du eguneroko lanean.
- Hezkuntza-komunitatearen iritzi guztiak aztertu ondoren, zein arlotan sakondu behar zen erabaki zen, eta, horren ondorioz, ondorengo atalean ikus daitezkeen helburuak aurkeztu ziren.

3. IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN DIAGNOSTIKOA

2013-2014 ikasturtean zehar, gure ikastetxe / eskola / ikastolan elkarbizitzaren egoerari buruzko diagnostikoa egitea ahalbideratu zigun baliabide egokia erabili genuen, eta emaitza hauek lortu genituen:

-
-
-
-
-

Emaitzei buruzko hausnarketa egin ondoren, segidako atalean jasotzen diren helburuak aurkeztu ziren:

-
-
-
-
-

4. HELBURU OROKORRAK

Elkarbizitza Plan honetan, ikastetxeko elkarbizitza-giroarekin loturiko IHPko helburuak jasotzen dira eta gure ikasleek beren garapen pertsonal eta sozialean lortzea nahi dugun balioak. Ondoren helburuen sailkapena aurkezten da, eragin esanguratsuena duten alderdiak kontuan izanik:

a) Elkarbizitza-giroarekin loturiko helburuak

- Ikastetxean elkarbizitza positiboko giroa sortzea, non komunitateko kide guztiak parte direla sentituko duten.
- Ikastetxeko elkarbizitza-arauak denen artean eta adostasunez lantzea eta, behar denean, berrikustea hezkuntza-komunitatean harreman positiboak sustatze aldera.
- Elkarbizitza positiboarekin loturiko zenbait alderdiri buruzko eta hezkuntza-komunitateko estamentu guztiei zuzenduriko prestakuntza (kulturartekotasuna, aniztasun afektibo-sexuala, heziketa emozionala, gatazken kudeaketa, portaeraren hobekuntza...) proposatu eta plangintza egitea, ikastetxeko elkarbizitza positiboaren agente aktiboak izaten lagundiko dieten trebetasun eta baliabide komunak izan ditzaten.
- Irakasle-taldearen harremanak hobetzea, partaidetza eta komunikazioko mekanismoak eta tresnak emanaz, klaustrokideek areagotu dezaten ikastetxeko parte direlako sentimendua eta zeregin komunetan gehiago inplika daitezten..
- Gatazken tratamendu egokia eta haiek modu baketsuan konpontzen ikasteko estrategiak prestatu eta abiaraztea.
- Modu adostuan, jokabide desegokien aurkako irizpideak eta jarduteko jarraibideak lantzea, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko 201/2008 Dekretuaren arabera.
- Hezkuntza-komunitateko estamentu guztien eta inguruko beste kanpo-eragile batzuen partaidetza sustatzea.

b) Inplikazioarekin eta partaidetzarekin loturiko helburuak

Gure ikastetxeko irakasleek lan-ibilbide luzea dute elkarbizitzaren arloan. Lan horren aitzindariak ikasketaburua eta ikastetxeko orientatzailea izan dira, eta Elkarbizitza Batzordea du oinarri.

Irakasleen partaidetza ziurtatuta dago Elkarbizitza Batzordea eta Pedagogia Batzordearen bidez, horiek ezartzen baitituzte gerora klaustroak eta OOGk onartuko dituzten elkarbizitza arloko oinarritzko jarraibideak.

Halere, ikasleen inplikazioa ez da oraindik modu sistematikoan garatu. Zenbait ikasgela eta zenbait alderdiri dagokienez, lorpenak izan dira, baina ikasleak elkarbizitzako esku-hartzearen erdigune bihurtuko dituen plangintza estrategiko bat falta da.

Hori dela-eta, honako helburu hau proposatu beharra:

- Ikasgelako eta ikastetxeko elkarbizitzaren kudeaketan ikasleen inplikazioa sakontzea. Arlo horretan esku-hartzeak sistematizatzea.

c) Hezkidetzak

- Ikastetxe mistoa izatetik inolako ekintza diskriminatzailearik gertatzen ez den hezkidetzak-ikastetxea izatera pasatzea, non bi sexuen arteko errespetua eta sexua bizitzeko moduekiko begirunea identitate ezaugarriak izango diren.

d) Baloreak

- Ikastetxe bat izatea non tolerantzia, errespetua, elkartasuna eta lankidetzak balio partekatuak izango diren eta ekintzak jakin batzuetan islatuko diren.

e) Kulturartekotasuna

- Partaide guztiek ikastetxean ordezkaturako kultura guztien balioa aitortzen duten komunitatea eratzea, ikastetxeari balio erantsia ematen dion ezaugarri modura hartuz.
- Arrazakeria / diskriminazioa / bazterketa gainditzea, azaltzen direneko egoerak desitxuratuz, eztabaida bultzatuz, enpatia eta pertsona guztien eskubideen aitortzea sustatuz.

f) Ikaskuntza emozionala

- Beren mugak onartuko dituzten eta beren gatazkak eta frustrazioak kudeatzeko gai izango diren pertsonak prestatzea.

g) Curriculuma

- Curriculumeko arlo eta irakasgai guztietan elkarrekin bizitzen ikasteko gaitasunaren zenbait alderdi zeharka landu, balioetsi eta ebaluatzea lortzea.

5. HELBURUEN LORPENA SUSTATZEKO EGITURAK

5.1. Elkarbizitzaren Behatokia

Elkarbizitzaren Behatokia gure kontsulta-organoa da eta gure ikastetxeko elkarbizitza ezagutu, aztertu eta ebaluatzeke baliabidea dugu. Eskola-jarduera hobetu nahi dugu, elkarbizitzaren ebaluazioa eta diagnostikoaren bidez. Konpromisoa hartzen dugu sistematikoki datuak jasotzeko, honako gai hauei buruz:

- a) Ikasleen arteko gatazkak. Liskarrak (zein leku eta unetan eta nolakoak), eskola-jazarpena (zenbat aldiz, sorburuak, tipologia, erabilitako bitartekoak...)
- b) Irakasleen eta ikasleen arteko gatazkak. Zenbat aldiz, zein taldetan, gatazkamota. Erreklamazio akademikoko izaera badu, jatorria aztertu.
- c) Gurasoek parte hartzen duten gatazkak. Zenbat aldiz eta zein motatakoak.

Halaber, honako hau egin nahi dugu:

- Arrisku-faktoreak identifikatu eta ekintza eraginkorrak proposatu (noiz, non. Adibidez: eguerdian, jantokian, garraioan).
- IPI IRATXE ikastetxearekin jardunbide egokien esperientziak partekatu.
- Prestakuntza arloko jarduerak proposatu.
- Gure Elkarbizitza Plana aztertu eta hobetzeko proposamenak aurkeztu.
- Denon partaidetza aktiboa sustatu, batez ere ikasleena (adibidez: hilero ikasgelako ordezkariak eta zuzendaritza talde biltzea elkarbizitza hobetzeko proposamenak lantzeko).
- Elkarbizitza positiboa bultzatu: hiru hilabetez behin festa bat antolatu, ingurune ez-formal batean irakasleen eta ikasleen arteko harremana sustatzeko; irribarrea eta adeitasuna sustatzeko kanpainak antolatu; bitartekaritza eta hezkuntza konpromisoetan lagundu... Gatazkak konpontzeko tailerra gurasoen eskura egongo da.
- Konponketa-neurriak lehenetsi.
- Ikastetxeko elkarbizitza-araudia berrikusi.
- Gerta litezkeen indarkeria eta eskola-jazarpen kasuak antzemateko ikasle-talde bat sortu.
- Modu zuzenagoan lan egin Osasun Batzordearekin; Udaleko, eskualdeko eta abarreko osasunaren aurkako kontsumoen prebentziorako zerbitzuekin, etab.
- Elkar zaintzeko kultura garatu, izan ere, nor bere burua eta besteak zaintzeak, bien poztasuna eta aberastasuna dakartza.

Arrakasta akademikoa ez ezik, ikastetxeko giroa eta eskola-komunitateko kide guztien arrakasta pertsonala ere hobetu nahi dugu. Pertsona guztiak aintzat hartuak, entzunak eta erabakiak hartzean partaide izan daitezen nahi dugu.

5.2. Beste egitura batzuk

Behatokiaz gain, ikastetxe honetan elkarbizitzaren kudeaketarako lagungarri izango den beste egitura bat sortu da: **Elkarbizitza Batzordea**.

Elkarbizitza Batzordea eratu zen ikastetxeko Elkarbizitza Behatokian sorturiko erabakiak eta proposamenak garatzeko, eguneroko gatazken kudeaketaren esparruan. Bere funtzionamendua, antolaketa eta osaketa AJAn jasota daude.

Horrez gain, OOGren aurrean aurkeztutako erreklamazioak berrikusiko ditu eta zuzendariak elkarbizitzaren aurkako portaera kaltegarrien aurrean hartutako neurri zuzentzaileen inguruko erabakirik egokienei buruzko proposamenak egingo ditu. Erabaki horiek gehiengoz hartuko dira, eta boto haztatuaren sistema erabiliko da.

Batzordea zuzendariak, ikasketaburuak, bi irakaslek, bi aita edo amek eta bi ikaslek osatzen dute.

Hilean behin bilduko gara (bigarren asteazkenean), eta konpondu beharreko arazoren bat dagoenean.

Batzorde honetatik lan egingo da planteamendu zigortzailea gainditu eta, neurri prebentibo, aringarri eta zaharberritzaileen bidez, elkarbizitza positiboagoa lortzeko.

³ EEPL legeak eskaintzen dituen bi aukeretako bat da eta eraginkorrena dela dirudi. Legeak berak eskatzen du osaketa proportzionala. Boto haztatuaren sisteman batzordea osatzen duten guraso, ikasle eta irakasleen botoen balioa OOGn edo Eskola Kontseiluan duten balio berekoa izan behar du. Ordezkapena ahalik eta txikiena izatea proposatzen da:aita edo ama bakarra, ikasle bat,eta irakasle bat; baina argi dago gehiago izan daitezkeela.

5. HELBURUEN LORPENA BULTZATZEKO EGITURAK

5.1. Elkarbizitzaren Behatokia

IPI EGUZKILORE ikastetxeak erabaki du gure Elkarbizitza behatokiak eginkizun hauek izango dituela:

1. Eskolako elkarbizitza giroa ona izan dadin, jarduerak sustatu eta antolatzea.
2. Urteko Planean elkarbizitza hobetzeko helburuak sar daitezela proposatzea.
3. ...

Eta pertsona hauek osatzen dute:

- Zuzendaritza-taldekoak:
- Irakasleriakoak:
- Guraso-elkartekoak:
- Ikasleriakoak:
- Hezkidetza-arduraduna:
- Beste batzuk:

Bere eginkizunak garatzeko, aldiro **koordinazio-bilerak** izango ditu ikastetxeko organo hauekin:

- ...
- ...
- ...

5.2. Beste egitura batzuk

Ikastetxean **Hezkidetza Batzordea** sortu da. Bere helburua Elkarbizitzaren Behatokiak proposaturiko erabakiak garatzea da, gure ikastetxea genero-berdintasuna bermatzen duen gune bihurtuko duten ekintzei buruzko erabakiak alegia.

Gure hezkidetza-arduradunak ofiziosz parte hartzen du Elkarbizitzaren Behatokian.

Gure xedeak:

1. Genero-ikuspegitik, koherentzia eman nahi zaie gure ikastetxeak martxan dituen hainbat ekimen, asmo eta programari, Elkarbizitzaren Behatokiari proposamen integratzaileak aurkeztuz.
2. Gure Elkarbizitza Planean jasoko ditugu ikastetxeko Hezkidetza eta Genero Indarkeriaren prebentziorako Planaren garapenarekin zerikusia duten hobekuntza-ildoak eta -ekintzak.
3. Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioaren kontzeptua ezagutu eta jakitera eman hezkuntza-komunitate osoari; horretarako zabalkunde-

jardunaldiak antolatuko dira. Jardunaldi horiek Ikastetxearen Urteko Planaren barruan egongo dira.

4. Ikastetxeko kudeaketako agiri guztietan genero-ikuspegia ager dadin zaintzea.

6. JARDUTEKO IRIZPIDEAK ETA ILDO OROKORRAK

6.1. Jarduteko irizpide nagusiak

Hezkuntza-komunitate osoak kontuan izango ditu jarduteko irizpide orokor hauek:

- Elkarbizitza positiboren sustapena esparru guztietan eta curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan egingo da.
- Elkarbizitzaren araudiari buruzko erabakiak hartzeko partaidetza lehenetsi behar da.
- Arauak eta erabakiak denon eskubideen eta ongizatearen bermea sustatzen duten elementuak izango dira, eta hala ulertu eta partekatuko ditu komunitate osoak.
- Hezkuntza komunitateko pertsona heldu guztiek, egoera gatazkatsuren bat ezagutzen badute, esku hartu edota arduradunei jakinaraziko diete.
- Gatazkak konpontzeko lehenetsuneko prozedurak kontziliazioa eta konponketa izango dira.
- Gatazkak kudeatzeko beti aztertu behar dira lehenik arrazoiak, eta, hala badagokio, zigorraren eragin berrezitzailea. Hartzen diren neurriak beti izan behar dute helburu berrezitzailea.
- Ikasleek gatazkak kudeatzeko duten modua kontuan izango da arlo eta ikasgai guztietako elkarbizitzarako gaitasunaren ebaluazioan.
- Jazarpen-kasuen aurrean inolako tolerantziarik ez.

6.2. Jarduteko ildo orokorrak

- Lehenetsunekoak izango dira ikastetxeko bizimoduan **partaidetza sustatzeko** jarduerak, hala nola, ikasleen aldetik (ordezkarien batzarra, ikasgelako bilera, OOG eta Behatokian parte-hartzea...), familien aldetik (Guraso Elkarteak, OOG eta Behatokian parte-hartzea) eta irakasleen aldetik (klastroa, sailak / zikloak, PKB, OOG, Elkarbizitzaren Behatokia...).
- Era berean lehenetsuna izango dute **komunikazio-kanal** argi eta eraginkorrak mantentzera bideratutako jarduerak, hala nola, zuzendaritzaren eta klastroaren arteko komunikazio-kanala, zuzendaritzaren eta irakasleen artekoa, irakasleen eta ikasleen artekoa, irakasleen eta familien artekoa, eta zuzendaritzaren eta AZLen artekoa.
- **Tutoretza-jarduerako planak** ere lehenetsuna izango du: banakako tutoretza eta taldeko tutoretza, talde-kohesioa lortzeko estrategiak, hezkuntza emozionala eta gizarte-trebetasunetan.
- **Ikasleen artean elkarrengain positiboak sustatuko dituzten metodologiak** erabiliko dira, ikasteko modu desberdinei erantzun, eskola inklusiboaren printzipioa errespetatu eta ikasle guztien arrakasta lortuko dutenak.
- **Bullying-a eta ziberbullying-a** berariaz landuko dira.
- Irakasle, ikasle, familia eta irakasleak ez diren langileei zuzenduriko **prestakuntza-planak** garatuko dira, gatazkari eta kudeatzeko moduari buruzko hezkuntza-ikuspuntuen inguruan.
- **Hezkidetzako eta kulturarteko eskola** baten alde lan egingo da, berariazko planak garatuz, adibidez, Hezkidetzeta Plana.
- Ikastetxeko elkarbizitza ebaluazio-saio guztietan jorratu beharreko gaia izango da. Datuak bildu eta proposamenak egingo dira, ondoren ikastetxeko zuzendaritzaren bidez, Elkarbizitzaren Behatokiari bidaltzeko.

6. JARDUTEKO IRIZPIDEAK ETA ILDO OROKORRAK

6.1. Jarduteko irizpide orokorrak

Hezkuntza-komunitate osoak kontuan izango ditu jarduteko irizpide hauek:

- Elkarbizitza positiboren sustapena esparru guztietan eta curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan egingo da.
- Gure ikasleen inklusioa eta hezkuntza-arrakasta oinarritzotzat hartzen ditugu, guztion ongizatearekin et elkarbizitza positiboaren lorpenarekin zuzeneko lotura baitute.
- Partaidetza izango da elkarbizitza-araudiari buruzko erabakiak hartzeko lehentasunezko bidea. Arauak eta erabakiak denon eskubideen eta ongizatearen bermea sustatzen duten elementuak izango dira, eta hala ulertu eta partekatuko ditu komunitate osoak.
- Hezkuntza komunitateko pertsona heldu guztiek, garrantzizko egoera liskartsuren bat ezagutuz gero, esku hartu edota haren berri eman beharko diete arduradunei.
- Gatazkak konpontzeko lehentasuna emango zaie adiskidetzeko eta kalteak konpontzeko prozedurei.
- Gatazkak kudeatzeko beti aztertu beharko dira lehenik arrazoiak, eta, hala badagokio, zigorraren eragin berrezitzailea. Hartzen diren neurriek helburu berrezitzailea izan beharko dute beti. Adiskidetzea eta kalteak konpontzea lehentasunezko prozedurak izango dira.
- Ikasleek gatazkak konpontzeko duten modua eta proposatzen dugun elkarbizitza-balioen araberrako jokaera duten ala ez kontuan hartuko da elkarbizitzarako gaitasunaren ebaluazioan eta, ondorioz, oinarritzko gaitasunen garapen-maila neurtzeko.
- Jazarpen-kasuen, eta edozein bereizketa- eta indarkeria-motaren aurrean eta bereziki genero arrazoiengatik bereizketa eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, tolerantziarik ez.

6.2. Jarduteko ildo orokorrak

Sistematikoki aztertuko dugu ea irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintzak, metodologiak, ebaluazio-prozesuek, irakasleen arteko koordinazioak eta familiekiko koordinazioak sustatu eta laguntzen dieten gure ikasleei arrakasta lortzen. Prestakuntza antolatuko da prozesu horien eraginkortasuna areagotzeko eta eskola-arrakastarako plan bat abiaraziko da, zeinak ikasle guztien motibazioa sustatuko duen ikasketa, bere gaitasunen aprobeitxamendua eta hezkuntza-arrakasta lortze aldera, autoestimua eta ikasteko atsegina areagotu eta frustrazioa eta porrotaren sententzioa saihestuz.

Garrantzi berezia ematen diogu gatazkei aurrea hartzeari. Gatazka ez da zerbait negatiboa eta ekidin beharrekotzat hartzen. Elkarbizitzak berezkoa du gatazka; beraz, irakasleriarri eta eskola-komunitateko kideei baliabideak ematen dizkiegu gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko. Tutoretza-jarduerako planaren diseinu eta garapenean honako baliabide hauek aipatuko dira: elkar ezagutzeko baliabideak, elkarrenganako estimua lantzeko, ekimenak irmoki entzun eta proposatzeko, elkarlanerako, erabaki bateratuak hartzeko, gatazkei modu bateratuan aurre egiteko.

6. JARDUTEKO IRIZPIDEAK ETA ILDO OROKORRAK

6.1. Jarduteko irizpide orokorrak

Hezkuntza-komunitate osoak kontuan izango ditu jarduteko irizpide hauek:

- Elkarbizitza positiboren sustapena esparru guztietan eta curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan egingo da, eta kontuan izango da elkarbizitzarako gaitasunaren ebaluazioan eta ondorioz oinarritzko gaitasunen garapen-maila neurtzean, ikasleek nola kudeatzen dituzten gatazkak eta proposaturiko elkarbizitza-balioen arabera jokatzeko duten.
- Pertsonen arteko adimenaren, trebetasun sozial eta emozionalen, eta balio etikoen garapena ikastetxeko profesionalen ardura izango da, familien lankidetzarekin.
- Partaidetza izango da elkarbizitza-araudiari buruzko erabakiak hartzeko lehentasunezko bidea.
- Arauak eta erabakiak denon eskubideen eta ongizatearen bermea sustatzen duten elementuak izango dira, eta hala ulertu eta partekatuko ditu komunitate osoak.
- Hezkuntza komunitateko pertsona heldu guztiek, garrantzizko egoera liskartsuren bat ezagutuz gero, esku hartu edota haren berri eman beharko diete arduradunei.
- Gatazkak konpontzeko lehentasuna emango zaie adiskidetzeko eta kalteak konpontzeko prozedurei.
- Gatazkak kudeatzeko beti aztertu beharko dira lehenik arrazoiak, eta, hala badagokio, zigorraren eragin berrezitzailea. Hartzen diren neurriek helburu berrezitzailea izan beharko dute.
- Adiskidetzea eta kalteak konpontzea izango dira lehentasunezko prozedurak.
- Jazarpen-kasuen eta edonolako indarkeriaren aurrean tolerantziarik ez.

6.2. Jarduteko ildo orokorrak

Ezinbestekotzat jotzen dugu hezkuntza-arloan elkarbizitza positiboa sustatzeko baliabideak izatea: hezkuntza-komunitatearen sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa, curriculumean harremanak areagotzeko edukiak sartzea, elkarrekiko errespetua, elkartasuna, sentimenduak, gizarte-trebetasunak...

Horrekin batera irakatsi et ikasteko, eta balioetan oinarritutako hezkuntzako kooperatiba-teknikak garatu behar dira. Horrek metodologia-aldaketa sakona eta garestia, baina elkarbizitzaren ikuspuntutik errentagarria eskatzen du.

Interes berezia jarri behar da gatazken konponketan, biktimaren autoestimua indartuz, arazoan parte hartu duten gainerakoak ahaztu gabe: jazarleak eta ikusleak, eta partaide guztiei ezarri beharreko neurri hezitzaileak azpimarratuz. Ildo horretatik, bereziki garrantzitsuak dira gure ikastetxearentzat: ikasle laguntzaileak, kalitate-zirkuluak, Pikas metodoa...

Halaber eskola-komunitateko talde guztiei bideratutako prestakuntzaren plangintza egingo da sistematikoki, gizarte-trebetasunak lantzeko, emozioak kudeatzeko eta guztion ongizatea eta elkarbizitza positiboa sustatu eta babesteko duten protokoloak hedatzeko.

7. BIZIKIDETZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA

Ikastetxeko Urteko Planean, urtero sartuko dugu ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko helburu bat gutxienez. Elkarbizitza Planean jasotako helburuetako baten zehaztapena izango da.

Gainerako urteko helburuen kasuan gertatzen den bezala, plangintza egin eta jarduerak garatuko dira helburu horiek ere lortzeko.

Jarduera horien garatu eta jarraitzeko arduradunak finkatuko dira , eta baita denborak, baliabideak eta jarraipen- eta lorpen-adierazleen zehaztapena ere.

Helburu horien ebaluazioa ikasturte amaierako memorian islatuko da , eta kontuan hartuko da hurrengo ikasturteko elkarbizitza-helburuak ezartzean.

Elkarbizitzaren Behatokiak, hau da eskola-komunitateko sektoreen ordezkaritza biltzen duen estamentuak, urtero elkarbizitzarako helburuak proposatuko ditu, eta garatu beharreko jardueren diseinuan eta jarraipenean parte hartuko du.

Helburuek eta aukeratutako jarduerak, berekin dituzte zenbait prestakuntza-ekintza, eta Ikastetxeko urteko Planaren prestakuntza-atalean jasoko dira.

Halaber, Urteko Planean estamentuen parte hartzeko modua, ordezkaritza, eta bakoitzaren zereginak eta erantzukizunak.

Prozedurak ezarriko dira komunitateko kide guztiek ikasturte bakoitzeko helburuak ezagut ditzaten, eta haiek lortzen lagun dezaten.

8. ZABALKUNTZA

8.1. Elkarbizitza Planaren zabalkuntza

Elkarbizitza Planeko helburuak modu arrakastatsuan lortzeko komunitateko kide guztiek ezagutu behar dituzte. Horregatik:

- a) Ikastetxearen webgunean Elkarbizitzaren Plana eta haren laburpena aurki daitezke. Bertan esteka bat dago, non Elkarbizitza Plana eta Behatokiaren funtzionamendua hobetzeko iritzi, iradokizun et proposamenak eman daitezkeen.
- b) Ikastetxeak Hezkuntza Proiektuaren eta Elkarbizitza Planaren alderdirik nagusienak jasotzen dituen dokumentu-laburpen erraz edo koaderno bat dauka. Dokumentu hori eskola-komunitateko kide guztien eskura dago, eta sistematikoki ematen zaie, harrera-unean, hezkuntza-komunitatean sartzen diren pertsona guztiei (ikasleak, familiak, irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, etab.).

Aipatutako koaderno horretan elkarbizitzari buruzko oinarritzko araudia, jarduera-protokoloak, prebentziozko jarduerak etab. adierazten dira. Eta edukiari eta erabilgarritasunari buruzko iritzia jasotzeko galdetegi bat eransten zaio, elkarbizitza hobetzeko eta kidetasun-sentipena areagotzeko proposamenak eskatzeko. Era berean, Elkarbizitzaren Behatokirako proposamenak egiteko gonbita luzatzen da.

- c) Ikasturte-hasierako bilerak. Ikasturtearen hasieran familiekin, ikasleekin, klaustroarekin, guraso elkartearekin eta abarrekin izaten diren bileretan, hainbat gairen artean, Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren funtsezko zenbait alderdi eta haien urteko zehaztapenak aztertzen dira
- d) Tutoretza Planaren jarduera-programaren barnean, tutoretza-saio batean, Ikastetxeko Elkarbizitzarako Planaren helburuak eta jarduera-ildoak aztertzen dira, eta baita urteko elkarbizitza-helburuak eta -jarduerak, talde bakoitzean zertan lan egingo den berariaz zehaztuz.
- e) Urtero, kultura asteko jardueren artean Elkarbizitza Planeko helbururen bat garatzera bideratutako jarduera bat, gutxienez, egingo da.

8.2. Helburuen eta urtean burutu beharreko jardueren zabalkuntza

Ikasturte bakoitzeko helburuak ikastetxeko sarrerako atondoan jartzen dira ikusgai, bertara sartzen den edonork ikus ditzan.

Urtero, ikasturte amaieran ematen den galdera-sortan, ikastetxeko elkarbizitzari eta elkarbizitza hori hobetzeko egindako jardueri buruzko galderak egiten dira.

Webgunean jartzen da Ikastetxeko Urteko Planaren barruan.

8.3. Eskola-jazarpenaren aurrean jarraitu beharreko protokoloaren zabalkundea

Elkarbizitza Planean hezkuntza-komunitateari *eskola-jazarpenaren protokoloaren* berri emateko prozedura et horrelako kasuetarako jarduera-jarraibideak ezarriko dira. Gure ikastetxean, ikasturte hasierako bileretan, OOGren lehen bileran, eta klaustroaren lehen bileretako batean aurkeztuko dira protokoloa eta, eskola-jazarpenaren zantzua duen portaeraren baten jakitun izanez gero, jarraitu beharreko prozedurak.

8.4. Hezkidetza eta Genero-indarkeriaren Prebentziorako Planaren zabalkundea

...

9. BIZIKIDETZA PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

9.1. Elkarbizitza Planaren ebaluazioa

Elkarbizitzaren Behatokiak gutxienez lau urtetik behin Elkarbizitza Planaren ebaluazioa egingo du. Ikastetxeko zuzendaritzak eta Elkarbizitzaren Behatokiak alderdi hauek aztertuko ditu:

- a) *Hezkuntza-komunitateak zenbateraino ezagutzen duen Elkarbizitzaren Plana.* Kontuan izan behar da kideak denborarekin aldatu egiten direla. Hori dela eta, bi urtetik behin zuzendaritzak galdera-sorta bat pasatuko die ikasleei eta familiei tutoretza-saioen bidez.
- b) *Zabalkunderako eta sentsibilizaziorako prozeduren eraginkortasuna.* Bi urtez behin betetzen den galdera-sortaren emaitzen arabera, Elkarbizitzaren Behatokiak erabakiko du erabiltzen ari diren zabalkunde- eta sentsibilizazio-prozedurak bere horretan mantentzea, edo beste batzuk proposatuko ditu.
- c) *Elkarbizitza Planaren ezarpen-maila eta arrazoiaren azterketa.* Hainbat ikasturtetik behin Behatokiak aztertuko du Elkarbizitza Planeko helburuak zer neurritan joan diren zehazten urteko planean, urteko izaera duten helburuen bidez. Elkarbizitza Planaren ezarpen-maila balioztatuko du, ondorioak lortuz, arrazoiak aztertuz eta egoki iruditzen zaizkion aldaketa eta eguneratzeak proposatuz. Azterketa eta balioztatze hori urteko izaera izango duen txosten batean jasoko da.
- d) *Hezkuntza-komunitatearen ezaugarri eta beharrekiko Planaren erantzun-maila.* Urtero galdera-sorta pasatuko da, guztien ongizatea eta ikastetxeko parte izate-sentimendua indartuko duen elkarbizitza-giroa lortzeko gauzatzen ari diren jardueren inguruan, hezkuntza-komunitateko sektoreen asebetetze-maila jasotzeko.
- e) *Ikastetxeko elkarbizitzaren bilakaera.* Hiru hilabetero ikastetxeko zuzendaritzak ikastetxeko elkarbizitza eten duten egoeren berri emango dio Elkarbizitzaren Behatokiari, eta baita hartutako neurrien berri ere. Behatokiak bildutako datuen ikerketa egingo du urtero. Datuak aztertuko dira, honako hauek balioztatuz: elkarbizitza eten duten egoera-kopuruaren bilakaera eta egoera mota; hartutako neurri-mota, eta eginiko esku-hartzeak. Ikasturteen arteko azterketa konparatiboak egingo dira eta, joerak antzemateko eta Elkarbizitza Plana edo hura garatzen ari den era berrikusteko, dagozkion proposamenak aurkeztuko dira.
- f) *H 9.1 Elkarbizitza Planaren helburuen jarraipena eta ebaluazioa.* Elkarbizitzaren helburuen bilakaera erregistratzea delako eranskinean, proposaturiko helburu orokorren lorpen-maila jasota geratuko da. Horrela ikusi ahal izango da denboran zehar nola zehaztu eta landu diren. Garrantzizkotzat jotzen diren ekintzak ere erregistratuko dira.

- g) Elkarbizitza Plana eguneratu egingo da testuinguruaren baldintzak aldatzen badira, eta, erabakitzen bada, datu objektiboetan oinarrituz, ez dela bere eginkizunak behar den neurrian betetzen ari.

9.2. Urteko elkarbizitza-helburuen ebaluazioa

Ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da ikasturterako planifikatutako helburu eta jarduerak kudeatzeaz, eta Elkarbizitzaren Behatokiari emango dio kudeaketa horren berri. Ebaluazio hori Urteko Memorian jasota geratuko da.

Ikasturteko memoria proposaturiko helburuen lorpen-maila aztertuko da; ondorioak aterako dira, eta hurrengo ikasturteko helburuak ezartzeko oinarri izango diren hobekuntza-proposamen berriak sortuko dira, hala nola, ikasturteko elkarbizitza-egoerari buruzko datuak; antolaketa, curriculum eta funtzionamenduaren inguruko proposamenak; Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren alderdiren bat aldatzeko proposamena edo Elkarbizitzaren Behatokiari buruzkoa,...

Lorturiko helburuak Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren historikoan erregistratuko dira, dagokion helburu orokorrekarekin batera.

10. ERANSKINAK

- Elkarbizitza Planaren onarpen-akta
- Urteko elkarbizitzari buruzko datuak jasotzeko dokumentua
- Harrera-protokoloa
- Balizko eskola-jazarpen kasu bat antzematen denerako jarduera-protokoloa.
- Gatazken aurrean erabiltzeko eskola-bitartekotzako protokoloa
- *"H9.1 Elkarbizitza Planeko helburuen jarraipena eta ebaluazioa. Elkarbizitza-helburuen bilakaera erregistratzea"*

10. ERANSKINAK

BIZIKIDETZAKO HELBURU OROKORREN EBALUAZIOAREN ERREGISTROA DENBORAN ZEHAR

Elkarbizitza Planeko helburuak zehazten dituzten urteko
helburuak jasotzeko taula | landutako helburuen historikoa

Elkarbizitza Planeko 1. helburua. Komunitateko kide guztiei parte direla sentiaraziko dien elkarbizitza positiboko giroa sortzea ikastetxean.

2012-13 ikasturtea: Familiei harrera emateko protokoloa prestatzea.

2013-14 ikasturtea: --

2014-15 ikasturtea: Familien partaidetza sustatzeko estrategiak adostea.

2015-16 ikasturtea: Hiruhilekoaren amaierako festa antolatzea, sektore guztien parte-hartzea ziurtatuz.

2106-17 ikasturtea :

2017-18 ikasturtea:

Elkarbizitza Planeko 2. helburua. Gatazkak behar bezala tratatzeko eta modu baketsuan konpontzeko estrategiak landu eta abian jartzea.

2012-13 ikasturtea: --

2013-14 ikasturtea : Irakasle eta ikasleentzako bitartekari izateko prestakuntza

2014-15 ikasturtea: Eskolako bitartekari-talde bat sortzea

2015-16 ikasturtea : Bitartekaritzari buruzko solasaldiak familiekin

106-17 ikasturtea: --

2017-18 ikasturtea: Bitartekari-taldearen funtzionamendua ebaluatzea.

Elkarbizitza Planeko 3. Helburua. Ikasgelako eta ikastetxeko elkarbizitzaren kudeaketan ikasleek duten inplikazioan sakontzea..

2012-13 ikasturtea: Ordezkarri-batzordea sortu eta abiaraztea.

2013-14 ikasturtea: --

2014-15 ikasturtea: --

2015-16 ikasturtea: Ordezkarri-batzordearen funtzionamendua aztertzea.

2106-17 ikasturtea: OOGko ikasleen partaidetza sustatzea.

2017-18 ikasturtea :

Elkarbizitza Planeko 4. helburua. Ikastetxe mistoa izatetik, ekintza diskriminatzailerik gertatzen ez den eta bi sexuen arteko errespetua eta sexualitatea bizitzeko moduekiko errespetua identitate-ikur duen hezkidetzako ikastetxea izatera pasatzea.

2012-13 ikasturtea: --

2013-14 ikasturtea: --

2014-15 ikasturtea: hezkidetzaren eta genero indarkeriaren prebentziorako proiektu bat landu eta abiaraztea.

2015-16 ikasturtea: --

2106-17 ikasturtea:

2017-18 ikasturtea:

Elkarbizitza Planeko 5. helburua. Zeharka lortzea curriculumaren arlo eta ikasgai guztietan elkarbizitzako alderdiak landuak, balioztatuak eta ebaluatuak izatea.

2012-13 ikasturtea. --

2013-14 ikasturtea: --

2014-15 ikasturtea: Elkarbizitzarako gaitasuna lantzeko eta ebaluatzeko modua sailetan edo zikloetan adostea.

2015-16 ikasturtea: --

2106-17 ikasturtea: Programazioak berraztertzea, elkarbizitzarako gaitasuna arlo eta ikasgai guztietako ebaluazio-irizpideen artean dagoela ziurtatzeko.

2017-18 ikasturtea:

**Ikastetxearen
Elkarbizitza Plana
egiteko tresnak**

IZENA

Elkarbitza Planaren prestaketa-prozesua deskribatzeko gidoia

HELBURUA

Elkarbitza Plana prestatzeko ikastetxeak jarraitu duen prozesuaren deskribapen laburra egitea.

DINAMIZAZIORAKO METODOLOGIA

Elkarbitza Planaren prestaketa dinamizatzeko ardura duen taldea izango da burutuko duena.

BIZIKIDETZA PLANAREN PRESTAKETA PROZESUA DESKRIBATZEKO GIDOIA

- **Plangintza.** Prozesuaren deskribapen laburra (sentsibilizazio-fasea, diagnostiko-fasea, helburuak finkatzea, jarduera-proposamenak etab.), parte hartzen duen talde edo batzordea eta epekatzea, idazketaz eta zabalkundeaz arduratutako talde edo batzordea, ...
- **Lantalde edota batzordeen deskribapena.** Partaideak, talde-arduradunak, bileren maiztasuna, inplikazio-maila etab.
- **Metodologiak, estrategiak eta erabilitako baliabideak.** Adituen hitzaldirik, solasaldi informatiborik, prestakuntza-ikastarorik etab. egin den.
- **Prozesuan zehar bizitako esperientzia positiboen, lortutako helburuen eta abarren deskribapena.** Deskribatuak izatea merezi duten jarduerak, partaidetza edo lorpen arrakastatsua izan dutelako eta beste ikastetxe batzuentzat eredu izan daitezkeelako.
- **Elkarbizitza Planaren idazketa.** IHPn ezarritakoari jarraiki, nahitaez helduko zaio elkarbizitza positiboaren eraikuntzari, gatazken prebentzioa eta trataerari alegia. Antzemandako premia berrien erantzunak eta prestakuntza-plan bat ere izango ditu.
- **Elkarbizitza Planaren eta bere prestaketa-prozesuaren zabalkundea.** Jarraitu den prozesua eta plana bera deskribatu, eskola-komunitateak ezagut dezan.

IZENA

Zer den elkarbizitza guretzat (1. aukera).

HELBURUA

Hezkuntza-komunitateak elkarbizitza positibotzat zer ulertzen duen zehaztea.

DINAMIZAZIORAKO METODOLOGIA***Lehen lan-saioa***

Bi aukera daude: **1. aukera** honek **2. aukerak** (ikusi H2.2 tresna) baino lan-dinamika irekiagoa aurkezten du. Biak erabili badaitezke ere, Elkarbizitza Plana prestatzeko talde arduradunak erabakiko du bi aukeratako zein abiarazi.

Bi aukerak erabili daitezke hasiera batean banaka. Partaide guztiek burutu dutenean, eztabaida daiteke talde txikietan eta ondoren talde osoan. Talde osoaren ondorioak helburu horrekin prestatutako fitxan jasoko dira.

Aipatutako urratsak burutzeko nahikoa da lan-saio bat.

Lehen prozesu hori bukatu ondoren, talde koordinatzaileak talde osoan jasotako ekarpenak bilduko ditu, eta elkarbizitzaren behin-behineko definizioan ahalik eta ondoen integratzen saiatuko da.

Bigarren lan-saioa

Behin-behineko definizioa talde txikietan azter daiteke (estamentuak berezita, edo nahasian) bereziki zeregin horri eskainitako beste saio batean. Talde txiki horiek talde handi batean bilduko lirateke berriro ere, behin betiko testua adosteko. Saio honetako dinamika soilik talde handian ere burutu daiteke.

Bi aukeretan agertzen diren gai eta galderen formulazioa generikoa da, eta ez zaio bereziki estamentu jakin bati zuzentzen (irakasleria, familiak, ikasleria etab.); beraz, komeni da talde koordinatzaileak egokitzea, erabili behar dituenaren arabera.

2.1. ZER DEN BIZIKIDETZA GURETZAT | 1. aukera

LEHEN ZATIA

1. Zer da zuretzat elkarbizitza on bat? Elkarbizitzaren alderdi positiboan pentsatu, amets ezazu nolakoa izatea nahiko zenukeen.

--

2. Elkarbizitzak zer ematea espero duzu?, zeintzuk dira zure itxaropenak?, nola sentitu nahi zenuke?

Ikasleekin:

--

irakasleekin:

--

Administrazio eta zerbitzuetako langileekin eta garraio eta jangelako langilariarekin

--

Familiekin:

--

3. Ikastetxeko gune bakoitza behar batzuk asetzeko pentsatuta dago. Ikastetxeko eguneroko bizimoduan, helburu hori lortzen da?

--

Gure ikastetxeko espazio eta denboretan aldaketak egin behar dira?

--

4. Zer dira zuretzat elkarbizitza-arauak?

--

Eta diziplina?

--

5. Elkarbizitza-arauekin jarraitzen dugu...

Zuzenak, beharrezkoak eta zigortzeko baino prebentziorako eginak?

Kontuan hartu behar dituzte arrisku- eta kalteberatasun-egoerak?

Denok babestu behar gaituzte?

Nork egin behar ditu?

6. Ikastetxeko bizimoduan, elkarbizitzan, hainbat interes, ideia, itxaropen etab. adierazten dira. Baina ...

Nola bizi ditut gatazkak?

- Nireganako eraso modura.
- Ezintasun eta amorru sentsazioaz.
- Nire buruari zenbait galdera egitera behartzen nauen zerbaite bezala.
- ...

Nola eraldatzen ditudan?

- Aldaketatxoak kudeatuz...
- Kontzientzia hartzen saiatuz eta nire erantzukizuna hartuz...
- Errudun dela uste dudanarentzat zigorra bilatuz...
- ...

Neurri zuzentzaileak, nola lor genezake kaltea ordaintzeko eta harremanak berrasteko izatea?

*Zer **eragile** hartu behar ditugu kontuan **gatazkak** ahalik eta errazenez, eta modu sortzaile eta eraikitzailean **konpontzeko**?*

BIGARREN ZATIA

Zehaztu zer den zure ikastetxeko **elkarbizitza positiboa** | talde txikia

Zehaztu zer den zure ikastetxeko **elkarbizitza positiboa** | talde handia

HIRUGARREN ZATIA

Zehaztu zer den ikastetxeko **elkarbizitza positiboa**

IZENA

Guretzat zer den elkarbizitza (2. aukera).

HELBURUA

Zehaztu zer den hezkuntza-komunitatearentzat elkarbizitza positiboa.

DINAMIZATZEKO METODOLOGIA***Lehen lan-saioa***

Bi aukera daude. **1. aukera** (ikus *H2.1 tresna*) 2. aukerak baino lan-dinamika irekiagoa eskaintzen du. Elkarbizitza Plana prestatzeko ardura duen taldeak erabakiko du bi aukeratako zein abiarazi.

Bi aukerak erabili daitezke hasiera batean banaka. Partaide guztiek burutu dutenean, eztabaida daiteke talde txikietan eta ondoren talde osoan. Talde osoaren ondorioak helburu horrekin prestatutako fitxan jasoko dira.

Aipatutako urratsak burutzeko nahikoa da lan-saio bat.

Lehen prozesu hori bukatu ondoren, talde koordinatzaileak talde osoan jasotako ekarpenak bilduko ditu, eta elkarbizitzaren behin-behineko definizioan ahalik eta ondoen integratzen saiatuko da.

Bigarren lan-saioa

Behin-behineko definizioa talde txikietan azter daiteke (estamentu bakoitza bereizita, edo nahasian) zeregin horri bereziki eskainitako beste saio batean. Talde txiki horiek talde handi batean bilduko lirateke berriro ere, behin betiko testua adosteko. Saio honetako dinamika soilik talde handian ere burutu daiteke.

Bi aukeretan agertzen diren gai eta galderen formulazioa generikoa da, eta ez zaio bereziki estamentu jakin bati zuzentzen (irakasleria, familiak, ikasleria etab.); beraz, komeni da talde koordinatzaileak egokitzea, erabili behar dituenaren arabera.

2.2. GURETZAT ZER DEN BIZIKIDETZA | 2. aukera

LEHEN ATALA

Zer da **elkarbizitza positiboa** gure ikastetxean? Zer da zuretzat elkarbizitza positiboa?

Tresna hau erabiliz, zure ustezko elkarbizitza positiboaren osagai nagusienak lehenetsiko dituzu:

10 puntu dituzu banatzeko, zure irizpidearen arabera, elkarbizitza positiboaren alderdirik nagusienak izan daitezkeen artean:

a	Partaidetza: erabakietan, eztabaidetan, denen arteko lanekiko konpromisoan, inplikazioan, ikastetxea “zurea” dela sentitzean...	
b	Adierazteko askatasuna: zure iritzia eta ikuspuntua emateko benetako aukera, jarrera guztiekiko errespetu-giroa (zurearekiko hurbilak, desberdinak...)	
c	Segurtasun-sentimendua: ikastetxean seguru sentitzen naiz, fisiko zein psikologikoki.	
d	Egoera gatazkatsuetan defendatu eta azalpenak emateko aukera dut (azalpenak eman eta nire eskubideak defendatzeko mekanismoak eta protokoloak...)	
e	Lan-giroan gustura egotea.	
f	Agintea: arrazoizko eta begirunezko hierarkia dago, arauak adosteko mekanismoak ditugu...	
g	Ikastetxean elkar lagundu eta zaintzen dugulako pertzepzioa. Elkarrekiko konfiantza dugu denok.	
h	Gatazkak daudenean, haiek eraldatzeko baliabide etikoak ditugu, denok hobetuta atera gaitezen.	
i	Ikasgelako elkarbizitza-giroa positiboa da: tentsio emozional txikia, lankidetzalana, itxaropen handiak denentzat, elkarbizitza sustatzen duten metodologiaren erabilera.	
j	Aniztasunaren integrazio aberasgarria (ahalmenak, identitate afektibo-sexualak, kulturak, adinak, izaerak). Pertsona bakoitza onartu, estimatu eta bertakotzat hartzen da.	
k	Harremanak elkarrekiko ardura eta errespetuzkoak dira.	

BIGARREN ATALA

Zehaztu zer den zure ikastetxeko **elkarbizitza positiboa** | talde txikia

Zehaztu zer den zure ikastetxeko **elkarbizitza positiboa** | talde handia

HIRUGARREN ATALA

Zehaztu zer den ikastetxeko **elkarbizitza positiboa**

IZENA

Ikastetxeko elkarbizitzaren diagnostikoa. Irakasleria.

HELBURUA

Ikastetxeko elkarbizitzaren diagnostikoa egitea.

DINAMIZATZEKO METODOLOGIA

Tresna hauek *elkarbizitza positiboaren definizioa* jorratzen zuten H 2.1 eta H 2.2ren osagarriak dira. Gida honetan agertzen den hurrenkeran edo alderantziz erabili ahal dira. Azken kasu horrek balio du lehenik diagnostikoa eta haren gainean elkarbizitza positiboaren definizioa egitea hobe dela uste duten ikastetxeetarako.

irakasleria

1.atala. Non gaude?

2. atala: Ezinegon eta gatazken sailkapena eta zergatien identifikazioa.

Lan-saio bat gomendatzen dugu bi zatiak egiteko.

Proposatzen dugu [1] taula lantalde txikitan osatzea. Behin osatu ondoren, taldeko arduradunak [2].grafikora pasatuko du puntuazioa.

[1] taula banaka ere osatu ahal da. Horrela bada, koordinazio-taldeak pasatuko du puntuazioa [2] grafikora.

[3] grafikoan proposatzen den azterketa eta 2. zatiko sailkapena talde txikian, bigarren lan-saio batean, egitea proposatzen dugu.

Talde txiki guztiek jarduera bukatzean, koordinazio-taldeak ekarpen guztiak bilduko ditu laburpen-fitxa bakarrean (ikusi *H 3.5 tresna*).

3.1. IKASTETXEKO BIZIKIDETASUNAREN DIAGNOSTIKOA | irakasleria

LEHEN ZATIA

